

## Joseba Tapia trikitilaria

Irailean kaleratuko du lan berria

KULTURA, 26



## Aloña Mendik ez zuen partidua bukatu

UDAK irabazi egin du (2-1) eta Mondrak, berriz, galdu (1-3)

KIROLA, 12-13

## Gertrudis taldea

Entzuleak dantzan jarri zituen 3.60an

KULTURA, 22



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko maiatzaren 8a • 3. urtea • 100. zenbakia • 0,90 euro

## Migue Magoak eroan du ikusleen saria Magia Mostran

*II. Magia Mostra egin dute asteburuan Elgetako Espaloian punta-puntako saioekin*

### MAGIA ETA UMOREA

Magoak izateaz gain 'showman' bikainak ere badirela frogatu zuten ikuskizun ezin gozagarrigoetan

### JENDEA GUSTURA

Zapatuan Espaloia goraino bete zen magia gala ikusteko; jendeak gozotsu hartu zuen parte, gainera

### MAGIA KALEAN

Atzo eguerdian kalean egindako saioek arrakasta handia izan zuten

Ilusionismoak eta magiak erakarrira, lagun askok jo du asteburuan Elgetara Magia Mostrako ikuskizun bikainekin harri eta zur geratzeko. Gaur ere, oraindik bat baino gehiago ibiliko da buruari bueltaka, trikimailuetan pentsatzen. Poliki-poliki zaletasuna sortzen dabilela ematen du, erantzuna ikusita. **20-21**



JOSETXO ARANTZABAL

### IKUSLEAK ZUR ETA LUR ETA MAGOAK MAHUKAK HUTSIK

Bariku gauean begien aurrean gertatutakoa ezin sinistuta geratu zen argazkiko emakume elgetarra. Migue Magoari erlojua utzi zion. Hark poltsatxo baten sartu eta txikitu ondoren, sabaitik zintziliek egondako kaxa bat eman zion emakumeari. Kaxa barruan, babarrun lata baten sartuta itzuli zion atzera erlojua emakumeari, oso-osorik.

## Eguenean 25 urte egingo ditu Jon Agirrek kartzelan

Maiatzaren 11n izango dira 25 urte Jon Agirre aramaioarra espetxeratu zutela. Hala, urte horiek guztiak preso daramatzala eta haren egoera salatzeke kale agerraldia deitu dute hilaren 11rako, 19:30ean, Aramaioko Bizente Goikoetxea plazan.

Protesta ekitaldiaren antolatzailen esanetan, elkarretartzearen arrazoi nagusia da "Agirrerendako 92. artikulua exijitzea, gaixo dagoelako: erizaindegian dago eta minez egoten da; tratamendua badu, egunean 9-10 pilula hartzen ditu, baina haren osasun egoera ikusita legeak dioena beteko balute, etxean egongo litzateke". **8**

## Bergarak antolatuko du datorren urtean Trikitixa Eguna **24**

## Yerai Varela oñatiarra

*Arrasate-Oñati lasterketako txapela jantzi du* **17**



## EBA ligak ihes egin die arrasatearrei

*Mugarri Alkesa saskibaloitaldeak galdu egin zuen lehen kanporaketa* **15**

C-MAX 30 urtemuga  
16.800€-gatik

Ford Focus C-MAX

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g ARRASATE



# GEUREAN

- EA-ko ibarreko hainbat kideri udal hauteskundera begira EAJrekin bat egiteaz galdetu diegu | 4
- Mila sinaduratik gora batu dituzte Bergaran Bai eskolak euskalduntzeari ekimenean | 7

Bergararak  
pozik lehen  
erromeriarekin eta  
bigarrena hilaren  
12an egingo dute | 6

EMAKUMEAK ELKAR EZAGUTZEN



AITOR LIZARRALDE

Monterrongo sekuoiekin txudituta geratu ziren Munduko Emakumeak elkarteko kide asko; argazkian ikusten den moduan, kideetako batzuen seme-alaba eta senarrek ere parte hartu zuten bisitan.

GIZARTEA | MUNDUKO EMAKUMEAK ARRASATEN ETA ESKORIASAN

## Herri ugaritako emakumeen topaleku bilakatu zen atzo ibarra

*Ekin Emakumeak elkarteak gonbidatuta eta Amaren Eguna dela aitzakia moduan hartuta, Bilbotik etorritako 35 emakumek inguruak eta Ekin elkarteak ezagutu zituzten*

Ubane Madera

Munduko Emakumeak du izena Bilbotik etorritako taldeak, bere barruan askotariko nazionalitateko emakumeak batzen dituelako. Goizean iritsi ziren 35 emakume (bi gizon eta hiru ume ere bai) eta Ekin Emakumeak elkarteko kideek egin zieten harrera. "Hasieran uste baino emakume gutxiago etorri gara. 60-edo etorri behar ginen, baina badakizu: ume-

ak gaixotzen dira...", argitu zigun Bilboko elkarteko Maribik. Hala, Ekinen eskutik eta gidari batek lagunduta, Arrasate ezagutu zuten, gero bazkaria egin zuten Ekinen lokalean eta arratsaldean Eskoriatza inguruak eta Ibarraundi museoa bisitatu zituzten.

Emakumeen elkarte askorekin du harremana Munduko Emakumeak eta elkarte horietako zenbaiten lana eta kideak ezagutzeko halako bisitak egi-

ten dituzte batzuetan. Horregatik etorri ziren atzo Arrasatera. Eta gustura asko ibili zirela kontatu ziguten. Kontatu ziguten, baita ere, oro har, orain arte hemen (Euskal Herrian) bizi izan duten esperientzia ona dela: "Leku guztietan moduan, hemen ere jende ona eta jende txarra dagoela pentsatzen dut, baina nik, behintzat, orain arte, harreman onak izan ditut", esan zigun Munduko Emakumeak elkarteko Mariak.

Elkarteari berari dagokionez, berriz, kontatu ziguten astero-astero egiten dituztela batzarrrak eta 40-50 emakume inguru batzen direla. "Hori bai, batzar berezi bat egin genuenean, orduan harrituta geratu nintzen, 500 bat lagun elkartu ginen-eta!", esan digu Nildak.

### ETORKINEKIN LANEAN

Ekin Emakumeak elkarteko kide Leire Aperribaik eta Rufina Olsagastik, berriz, kontatu ziguten Emakumeen Kontseilura iritsi

**Leku ugaritako etorkinek osatzen dute Munduko Emakumeak**

**Ekinen iaz hasi ziren etorkinekin lanean; emakume elkarten arteko harremana sendotu gura dute**

zitzaiela Bilboko taldearen Arrasate bisitatzeko eskaera. Interesgarria irudituko zitzaizkien osatutako emakumeen halako elkarteak ezagutzeko, Ekinen iaz hasi ziren-eta etorkinekin lanean, eta etortzera gonbidatu zituzten: "Bi proiektu landu genituen etorkinekin. Berezi eman genien hemen dituzten baliabideen gaineko informazioa: kultur zerbitzua, Emakume Txokoa, Kutxa-Zeharo, lan-zerbitzua... erakutsi genizkien. Horrez gainera, Santamasetan, esaterako, truke kulturala bideratu genuen". Jakinarazi digutenez, Arrasaten, batez ere, Latinoamerikako emakumeak datoz elkartera: "Hasieran arabiarrek ere bazetozen, baina gero etortzeari utzi egin zioten. Oro har, arabiar emakumeek gutxiago hartzen dute parte halakoetan".



EMAKUMEAK ELKAR EZAGUTZEN

JESSICA PEREZ | MUNDUKO EMAKUMEAK ELKARTEKO KIDEA

# "Elkarri laguntzea da gure elkartearen helburua"

UM

**Munduko Emakumeak elkarteko ordezkari moduan berba egin digu Jessica Perezek. Ekuadorkoa da. Aurten sartu da elkartean.**

**Munduko Emakumeak duzue izena, baina Bilbotik zatozte, zela da hori?**

(Barreak). Begira, gu gara elkarte bat batzen dituen mundu guztiko emakumeak, horregatik gure izena da Munduko Emakumeak. Hemen gaude Bilboko, Ekuadorko, Arabiako, Marokoko... emakumeak. Helburu bera dugun emakume multzo bat gara.

**Eta zein da, bada, helburua?**

Emakumeok gizartean ditugun eskubideak eta ardurak zeintzuk diren jakitea.

**Hori lortzeko zein ekimen egiten dituzue?**

Astelehenero elkartzen gara eta hainbat puntu lantzen ditugu: esaterako, emakumeen pobretzea lantzen dabilta orain gizartean, bada guk gai bera lantzen dugu: zer egin dezakegun, zela lagundu... aztertzen dugu horrek zer eragin duen gudan, kartzetako egoera ere aztertzen dugu, han emakumeak zela dauden... halakoak.

**Badago emakume talderen bat integratzea gehiago kostatzen zaiona?**

Gehiago kostatzen zaionak dira hizkuntza ondo ezagutzen ez dutenak, baina ikasten dabiltaenez, integratzen laguntzen diegu eta erakusten diegu zeintzuk diren emakumeen eskubideak.

**Batez ere gizarte lana betetzen duzue, beraz...**

Gure azken aldizkarian berba egin dugu, esaterako, etxeko lanak egiten dituzten emakumeen eskubideen gainean. Batez ere halakoan gainean berba egiten dugu eta elkarri laguntzen ahalagintzen gara. Hori da elkarteko garrantzitsuena: emakumeen elkarte bat garelako elkarri laguntzen ahalagintzen dena.

**Zein zailtasun izaten dituzue?**

Aurre egin behar diegu, edozein gizartean moduan, gerta-



tzen diren injustizia ugari, esaterako, orain hilabete inguru, lana bilatzen laguntzen duen enpresa horietako bat emakumeak esplotatzen zebilela jakin genuen eta haren kontrako protestetan lagundu genuen.

**Ez duzue pentsatu elkarte beste leku batzuetara zabaltzea?**

Egiten duguna da bestelako emakume elkarteekin batzarrak

egin. Han duten arazoak ikusi, hemen ditugunak... eta aztertzen dugu zela lagun diezaiogun elkarri.

**Noiztik existitzen da elkarte?**

Bost urte daramatza lanean, emakumeek gizartean jasaten dituzten injustiziei aurre egiten; eta ahalegintzen gara emakumeek ikas dezaten euren eskubideengatik borroka egin dezaketela.

**"Gure elkartearen errespetatzen eta entzuten ditugu ideia guztiak"**

**"Elkartearen helbidea da: Fika kalea, 5. zenbakia, behe-barrua, Bilbo"**

• BATZUETAN ANTZERA, BESTETAN DESBERDIN



NILDA | ARGENTINA

**"Hemen zailtasunei aurre egiteko baliabide askoz gehiago daude"**

"Ni natorren herrialdeko egoera eta hemengo ez dira berdinak; baina zailtasun askoz guztiondako dira igualak. Gertatzen dena da hemen (Europar eta Euskal Herrian) zailtasun horiei aurre egiteko baliabide askoz gehiago daudela."



CONY | EL SALVADOR

**"Senar eta seme-alabekin harreman antzerakoa dugu han eta hemen"**

"Ekonomiaren ikuspuntutik hango eta hemengo egoera guztiz desberdinak dira. Han bizi-raupenerako bizi gara. Hori bai, senar eta seme-alabekin dugun harremana antzerakoa da; baina hemen aurreratuago dago egin beharreko lana."



CATALINA | KOLONBIA

**"Hemen lasai ibil zaitezke kalean, bortxatu egingo zaituztela pentsatu barik"**

"Oso desberdinak dira hemengo eta hango egoerak. Hemen lasai ibil gaitzke kalean, pentsatu barik edozein momentutan bortxatu egingo gaituztela. Leku ilunetan ere ibil zaitezke, nahiz eta hasieran niri beldurra ematen zidan."



ANA LUCY | PERU

**"Han ezin zaitezke urrezko bitxiekinekin kalean ibili, lapurretan egiten dizute"**

"Hangoarekin konparatuz, lasaitasuna da gehien nabaritzen dudana hemen. Han, urre asko egon arren, ezin zaitezke urrezko belarritakoekin eta kalean ibili, lapurretan egiten dizutelako; hemen ez da horrela gertatzen."

# Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA





EAJ-EA KOALIZIOAREN ETORKIZUNA | IRITZI KONTRAJARRIAK EA ALDERDIAN

# EAn koalizioaren gaineko jarrera kontrajarriak azaleratu dira asteon

*Hauteskunde atarian Barne-eztabaida aurreikusten da, EA alderdian*

Larraitz Zeberio

Bertan ditugu datorren urteko udal hauteskundeak, eta Begoña Erraztiren alderdian azaleratu da, berriz ere, EAJ-EA koalizioaren egokitasunaren gaineko eztabaida. Jeltzaleek adierazia dute

koalizioaren aldeko jarrera, baina barne-eztabaida aurreikusten da EAn. Begoña Erraztik asteon esan du une honetan EAJrekin koalizioa osatzea ez dagoela EAren gai zerrendan. Bitartean, EAko Gipuzkoako lehendakari eta Oñatiko zinegotzi Iñaki Galdosek bes-

telako adierazpenak egin ditu. Haren aburuz, garai politiko berriaren ondorioz EAJren eta EAren arteko koalizioa "inoiz baino beharrezkoagoa" da.

Duela lau urte, luze jo zuten negoziatioek eta ez zen akordio-rik itxi hauteskundeak egin bai-

no lau hilabete lehenagora arte. Jeltzaleek jakinarazi dute ez dute la horrelakorik berriz onartuko eta aurreratu dute irailean hasiko direla hauteskunde zerrendak osatzen. EAK ordurako erabakita eduki beharko du koalizioaren aldeko apustua egiten duen edo ez.

IÑAKI GALDOS | EA-KO GIPUZKOAKO LEHENDAKARIA ETA OÑATIKO ZINEGOTZIA

## "Jakina da aspalditik gure alderdian bi iritzi daudela"

L.Z.

**Iñaki Galdos oñatiarrak argi dauka garai politiko berriaren ondorioz EAJren eta EAren arteko koalizioa inoiz baino beharrezkoagoa dela.**

**Badirudi iritzi kontrajarriak daudela EA alderdian.**

Alderdi guztietan daude iritzi ezberdinak eta jakina da aspalditik gure alderdian bi iritzi ezberdin daudela EAJrekin egin beharreko koalizioei buruz. Batzuek argi dugu koalizio estrategiko bat beharrezkoa dela eta beste batzuek pentsatzen dute ezetz. Baina horrek ez du esan nahi alderdia kohesionatuta ez dagoenik.

**Hasi duzue gai horren inguruko barne-eztabaida alderdian?**

Ez, oraindik ez.

**Zuk esandakoa da koalizioa inoiz baino beharrezkoagoa dela orain.**

Azken urteotan abertzaletasun instituzional eta historikoak

gidatu du Euskal Autonomia Erki-degoa, EAJk eta EAK, hain zuzen ere. Nire ustez, garai berri hauek ezinbestekoa da ardatz horrek indar handia izatea herri hau gidatzen jarraitzeko.

**Duela lau urte barne-eztabaidak luze jo zuen. EAJk esanda dauka oraingoan ez duela horrelakorik berriz ere onartuko. Nola ikusten dituzue zuk negoziatioak?**

Nire ustez, gure barne-eztabaidak ez zuen luze jo. Alderdien arteko negoziatioek jo zuten luze. Nik beti errespetatuko dut alderdiak erabakitzen duena, baina koalizioaren aldeko apustua egiten bada azkenean, garrantzitsua

deritzot alderdien arteko desadostasunak ez gizarteratzeari. Duela lau urte bi aldiz hautsi ziren negoziatioak. Baldin eta koalizioaren aldeko apustua egiten bada, sinistuta egin behar da. Duela lau urteko ikuskizuna eman gabe. Jendeari ez zitzaion batere gustatu esperientzia hura.

**Uste duzue horrelakoek boto galera ekar dezaketela?**

Bai. Koalizioa egiten bada, garrantzitsua da jendeak ulertzea benetan beharrezkoa ikusten dugulako egiten dugula. Horrelako liskarrek, azken finean, inpresio txarra ematen dute.

**Gurera, Debagoienera hurbilduz, EAJ-EA koalizioak alkatetzak gal ditzake gurean koaliziorik ez eginez gero?**

Ez zait gustatzen horrelako aurreikuspenak egitea. Urtebete gelditzen da hauteskundeetarako eta denbora luzea da hori. Gainera, jendeak gestioari ematen dio botoa udal hauteskundeetan. Duela



ASTELEHENKO GOIENKARIA


lau urte koalizioan joan ginen Debagoieneko udal guztietan eta formula horrek emaitza onak eman dituelakoan nago.

**EAJrekin koalizioa egitea ez da Begoña Erraztiren agendan. Iñaki**

**ki Galdosenean bai, ordea. Noiz ezagutuko duzue alderdiaren behin betiko erabakia?**

Gaiak bere prozesua izango du alderdian eta nik uste dut erabakia ez dela askorik luzatuko.

### • GARRANTZITSUA IRUDITZEN ZAIZU DATOZEN UDAL HAUTESKUNDEEI BEGIRA EAJ-EA KOALIZIOA BERRITZEA?




**PELLO URIZAR | EA-KO DEBAGOIENENKO ARDURADUNA**

"Batzar Nagusiari dagokio erabaki hori hartzea eta alderdiarekiko desleialtasuna iruditzen zait erabakia hartu aurretik adierazpenak egitea. Eztabaida ez da berria eta 2001ean gertatu zen moduan batzuk beraien adierazpenak egiten hasi dira dagoeneko. Taktika eta estrategia kontuak ikusten ditut nik hor. Kontu hauek alderdi barruan planteatu beharrekoak direla uste dut".




**JUAN CARLOS BENGOA | EA-KO ALKATEA ESKORIATZAN**

"Niretzako garrantzizkoena hemen erabakia lehenbailehen hartzea da. Eztabaida asko luzatu zen duela lau urte eta nire iritzi hori ez da batere ona. Hortik aurrera ez dut adierazpenik egin nahi. Esan dezakekan gauza bakarra da Eskoriatzan eztabaida hori ez dela oraindik planteatu. Une honetan koalizioak agintzen du eta oso zaila da zer gerta daitekeen aurreratzeko".



**EDORTA MENDIETA | ARETXABALETAKO EA-KO KIDEA**

"Aspaldiko eztabaida da hau gure alderdian eta iruditzen zait beti egongo dela, gainera. Aretxabaletako batzarrean ez dugu oraindik gaia aztertu, baina hemen, orokorrean, alderdikideen gehiengoak bat egiten du Iñaki Galdosen korrontearekin. Aurreko esperientziak ikusita iruditzen zait eztabaidak luze jo dezakeela, eta hori ez da batere lagungarria izango".



**IÑAKI UGARTEBURU | EA-KO ZINEGOTZIA ELGETAN**

"Nik nire esperientziari buruz hitz egin dezaket eta esan beharra daukat Elgetari dagokionez koalizioaren formula oso egokia izan dela. Une honetan, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundian ere badihardut eta han ere formula baliotsua izan dela esan dezaket. Nire ustez, beraz, apustuak hortik joan beharko luke. Koalizioaren alde egingo nuke nik."



Maiatzaren 8a: 086 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 8, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 36 euro**  
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Sei gonbidapen EIBAR- VALLADOLID futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Ramon Agiriano Eskibel (Eskoriatza)
- M. Karmen Agirreurreta Zeziaga (Arrasate)
- Jesus Agirre Isasmendi (Aretxabaleta)
- Kontxi Aldabe (Bergara)
- Xabier Altube Orueta (Oñati)
- Jesus Alzelai Irigoien (Antzuola)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Eider Amondarain Aranaga (Arrasate)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

## Maiatzaren 15eko sariak



- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

## EIBAR-LLEIDA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)





ERROMERIA | MUNIBE PLAZAN BEHARREAN UDAL PILOTALEKUAN EGIN ZUTEN BARIKUAN ERROMERIA, EGURALDIARENGATIK

# Lehenengoarekin pozik eta bigarren erromeriaren zain daude Bergaran

*Jende multzo polita batu zen barikuko erromerian. Antolatutako hiru erromerietatik lehena izan zen, eta antolatzaileak pozik daude harrerarekin*

Monika Belastegi

Barikuan egin zuten *Munibe plazara dantzara!* ekimenaren lehenengo erromeria. Ekimenaren helburua da Bergaran aspaldi galdutako erromeriak berreskuratzea, eta horretarako lanean jardun dute herriko hainbat taldek: Abarka, Xamatx eta Moises Azpiazu dantza taldeak, Bergarako Bertso Eskola, Bergarako Trikitixa Eskola, Jardun euskara elkarte eta Udaleko Kultura Zerbitzua.

Elkarlan horren fruitu, egitarau zabala antolatu dute: maiatzeko lehenengo hiru egubakoitzetarako erromeriak, hain justu. Baina ez hori bakarrik; erromerietarako jendea trebatzeko, dantza ikastaroak ere egin dituzte: batetik, porrusalda, fandangoa eta arin-arina ikasteko, eta, bestetik, zazpi-jauzi, zortzi-koa eta banakoa ikasteko.

## MUNIBE PLAZATIK UDAL PILOTALEKURA

Ekimenaren izenak dioen bezala *-Munibe plazara dantzara!*, Munibe plazan izatekoa zen bari-



JOSETXO ARANTZABAL

Datozen bi erromerietan eguraldi txarra eginez gero, Zabalotegiko pilotalekuan izango dira; ez Udal Pilotalekuan.

kuan lehenengo erromeria, baina eguraldiarengatik Udal Pilotalekuan egitea erabaki zuten antolatzaileak. "Pena izan da", esan ziguten, "hobe Muniben izan balitz, kalean dabilen jende gehiago animatuko zelako erromeriarra, baina eguraldia ez dago gure esku...", gehitu zuten. Horren haritik gehitu zuten geratzen diren bi erromeriak -hilaren 12an eta 19an- eguraldiarengatik Munibe plazan ezin badituzte egin, Zabalotegiko pilotalekura eroango

dituztela, eta ez Udal Pilotalekura, barikuan egin zuten bezala.

19:00ak pasatxo hasi zen barikuan dantzaldia. Bergarako Aitor, Jone eta Ekaitz trikitila-

riek ireki zuten eta ordu erdi batez jardun zuten. Gero, Etxabe anaiek hartu zieten lekukoa eta 22:00ak jota ziren azken doinua jo zutenerako.

**Aspaldi galdu ziren erromeriak berreskuratzea da ekimenaren xedea**

**Herritarrak trebatzeko dantza ikastaroak ere egin dituzte**


Pozik daude antolatzaileak lehen erromeriak jasotako erantzunarekin. Jende gutxiago zegoen hasieran, baina saioak aurrera egin ahala betetzen joan zen pilotalekuko kantxa. Hori bai, gehienak umeak eta emakumezkoak; gizonezkoek lotsa ematen ei die dantza egiteko eta eurenako asko pilotalekuko tabernan geratu ziren. Horren haritik, antolatzaileek animatu nahi dituzte herritarrak "begira egon barik dantza egitera".

## Labur

### Lapurretak Arrasateko bi tabernatan

Arrasateko taberna batean lapurtu egin dute eta beste batean lapurtzen saiatu ziren egubakoitz goizaldean. Herritar batek jarri zituen jakinaren ganean Bengoa tabernako nagusiak egubakoitz goizaldean, 04:00ak aldera. Tabernako pertsiana bortxatu eta kristalezko atea apurtuta sartu ziren lapurrak. "Diru bila sartu ziren", esan digu nagusiak. Izan ere, "kutzako diruaz eta zigarro batzuez gain ez dute beste ezer eron". Gau berean saiatu ziren Iluntz tabernan lapurtzen, taberna itxi eta handik hiru bat ordu laurdenera (03:45 aldera). Aireztatzeko bidea tapatzen duen parrilla lekuetik kendu eta handik sartzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu.

### • BERGARAKO ARANZADI IKASTOLA



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

### 15 IKASLE ESPERIMENTALDIA AZOKAN IZAN DIRA

Kutzaguneko Zientzia Azokan hartu zuten parte egubakoitz eta zapatuan Aranzadi ikastolako Astronomia taldeko 15 ikasleek. Donostiako Zientzia Museoa lehen aldiz antolatu du azoka eta ikasleek irakasle bihurtu eta bost esperientzia erakutsi eta gerturatu diete azokara joan direnei: ur suziriak, motor elektrikoa, ur iturria, kamera iluna eta lata magikoak. Esperientziok bi faktore dituzte komunean: zientzia era dibertigarrian lantzen dutela eta emandako azalpenekin norberak etxean errepika ditzakeela.

### • ARIZMENDI IKASTOLA



JOSETXO ARANTZABAL

### UMORE HANDIZ OSPATU ZUTEN JAIA ZAPATUAN

Ikasle, irakasle, guraso zein beste hainbat lagunek gozatu zuten zapatuan Arizmendi ikastolakoek euren jaia ospatzeko antolatu zituzten ekitaldietan. Ez ziren gutxi izan, gainera, guztion gozamenerako Arrasateko Ferixaleku inguruan egindako ekintzak: umeendako puzgarriak, tailerrak, gastronomia feria... Guztia, umore handiz jantzia, hori izan zen-eta ikastolak egun horretarako aukeratutako gaia: umorea. Ikastolaren gune bakoitzak gaiari lotutako emanalditxoak ere egin zuten. Bestalde, Argitxoren bigarren urtebetetzea ere ospatu zuten.





JOSETXO ARANTZABAL

Bertsolariak eta luntxa izan ziren Munibe plazan kanpainari amaiera emateko jaitxoan.

## Mila sinaduratik gora eskolak euskalduntzeko

*Bai Eskolak Euskalduntzeari ekimenak eskerrak ematen eta jaitxo batekin itxi zuen sinadura batzea zapatuan Bergaran*

Monika Belastegi

"Bergarako helburua zen 1.000 sinadura lortzea, eta horretara jarri ginen EHE, Jardun, IA, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolak, LAB, HEBE, AEK, Ipintza institutua eta Udal Euskaltegia, herritarren laguntzarekin batera. Duela hiru hilabete ekin genion batzeari eta gaur esan dezakegu helburua bete dugula, 1.000tik gora sinadura batu ditugu-eta". Hitz horietan Bai Eskolak Euskalduntzeari ekimenaren bultzatzaileetako batek

egin zituen zapatu goizean Bergarako Munibe plazan, sinadurak batzeko kanpainari amaiera emateko antolatutako jaietan.

Euskal Herrian euskara bermatzeko eta ereduaren politika gaindituz benetan euskalduntzen duen eskola baten aldeko kanpaina izan da egindakoa, eta ekimenaren bultzatzaileak pozik azaldu ziren zapatuan herritarren aldetik jaso duten erantzunagatik: "Kanpaina herrikoia izan da, denok nahi dugulako benetan euskalduntzen duen eskola, eta horren aurrean herritarren ha-

rrera primerakoa izan da. Horregatik, zorionak eman behar dizkiegu bergararrei eta guztion artean Euskal Herriko eskolak euskalduntzea lortuko dugula esan".

### BILKURAK ARETXABALETAN ETA DONOSTIAN

Kanpainari merezi duen oihartzuna emateko hilaren 27an Donostian egingo den manifestaziorako dei egin zuten zapatuan. Autobusa antolatu dute eta izena eman nahi duenak jo dezake: Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletara, Jardunera edo Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetara. Bestalde, Aretxabaletan hilaren 20an egingo den Euskararen Eguna ere ekarri zuten gogora eta han egingo den manifestaziorako deia egin.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Aurreko urteetan baino beranduago, baina jende mordoxka batu zen.

## Ez zen inor Atxorrotzen bazkaltzen geratu

M.B.

Atxorrotz eguna ospatu zuten atzo, domeka, eskoriatzarrek. Aurreko urteetan baino pixka bat beranduago igo ziren herritarrek atzo Atxorrotzera, eguraldiaren beldur edo. Hala eta guztiz ere, goizak nahiko itxura ona zekarrela ikusi zutenean mordoxka batek erabaki zuen igotzea. Hala, 11:00ak aldera, jende ugari zegoen goiko zelaletan. Ordu-rako, han zituzten zain taberna eta nola ez, pintxoak eta edariak.

### BAZKALTZERA HERRIRA JAITSI ZIREN

Aurreko urteetan hainbat herritarrek bazkaria eraman izan dute Atxorrotzera, baina, aurreko eguraldiaren beldurrez ez zen inor ausartu goian geratzera eta bazkal ordurako, 13:30ak aldera, guztiak jaitsi ziren, Arantxa Untzuetak Eskoriatzako kultura ardura-dunaren esanetan. Hala eta guztiz ere, egun polita igaro zutela gehitu du eta jendea pozik ibili zela mendian zein arratsaldean plazan egindako ekitaldietan.


### GAIXO NEUROMUSKULARRAK



JOSETXO ARANTZABAL

### GIPUZKOAKO ELKARTEKO KIDIAK OÑATIN BATU ZIREN ZAPATUAN

Oñatitik bisita egin zuten zapatuan Gipuzkoako Gaixo Neuromuskularren elkarteko kideek. Lehen geldialdia Unibertsitatean egin zuten. Mikel Etxezarretak, oñatiarra eta elkarteko kideak, egin zien harrera. Goizeko 11etarako hitzordua egin eta han batu ziren elkarteko hogeitak kide eraikina eta inguruak ezagutzeko. Herrian ibili ostean Arantzazura joan ziren eguerdi aldera. Han, Basilika ikusi eta bazkaria egin zuten Arantzazuko ostatuan. Hala, bazkaria eginda amaitu zuten urtero egiteko ohitura duten elkarteko irteera.



# MAPFRE BERGARA

ZATOZ, ZURE ZERBITZURA GAUDE



Udaberriko zozketako irabazlea  
M<sup>a</sup> Jesus Gutierrez Santamaria  
Zenbaki saritua: 619  
Saria: DVD eramangarria eta  
James Bond-en DVD sorta (20 film)

IBARGARAI, 5 BERGARA  
Tel. 943 76 28 79



## Albiste izango da

ARAMAIO | ELKARRETARATZEA EGINGO DUTE, 19:30EAN

## Eguenean 25 urte beteko dira Jon Agirre espetxeratu zutela

Maiatzaren 11n izango dira 25 urte Jon Agirre aramaioarra espetxeratu zutela. Urte horiek guztiak preso daramatzala eta haren egoera salatzeke kale agerraldia deitu dute hilaren 11rako, 19:30ean, Bizente Goikoetxea plazan.

Protesta ekitaldiaren antolatzaileek esan dute bilkuraren arrazoiak dela, batik bat, preso aramaioarrarendako "92. artikulua exijitzea, gaixo dagoelako: erizaindegian dago, minez egoten da; tratamendua badu, egunean 9-10 pilula hartzen ditu, baina legeak dioena beteko balute (92. artikulua), etxean egongo litzateke".

DEBAGOIENA | UZTAIL ETA ABUZTURAKO

## Ume sahararrak etxean hartzeko familia gehiago behar ditu Nubik

*Oporrak bakean* programa martxan da otsaila ezker, baina oraindik ere familia gehiago behar ditu Nubi elkarteak uztaile eta abuztuan etorriko diren ume sahararrendako. Programaren helburuak dira, besteak beste: haurrek aukera izatea ondo pasatzeko eta liburuetan bakarrik ikusi izan dituzten hainbat errealitate ezagutzeko; osasun aldetik, ume bakoitzari osasun azterketa egitea eta behar izanez gero tratamendua ematea eta elikadura aldetik, bi hilabeteen elikadura gabeziei aurre egitea.

Interesatuak dei dezakete 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18 telefono zenbakietara. Programa Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatira zabaldu dute.

BERGARA | EGUBAKOITZEAN IZANGO DA LEHEN SAIOA

## Jolasleku Ibiltaria programa deitu du Jardunek zazpigarren urtez

Jardun euskara elkarteak Jolasleku Ibiltaria programa antolatzen du zazpigarren urtez. 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta helburua da euskal kantu eta jolasen bidez euskaraz jolas egiteko baliabide egokiak eskaintzea eta, bereziki, ahoz-kotasuna lantzea. Horretarako, herriko leku jakin batzuetan jarriko dute jolaslekua Jarduneko kideek, bereziki umeak eta guraso edo zaintzaileak batzen diren tokietan, hain justu.

Bertan egingo diren jolasak dira, besteak beste: soka saltoa, abestiak, zapi jolasak eta tortoloxak.

Hiru saio egingo dituzte maiatzean: maiatzaren 12an, Fraisko zurin; maiatzaren 19an, Espoioian eta maiatzaren 26an, Simon Arrietan. Hiru saioak 17:00etan hasiko dira.

DEBAGOIENA | IZENEMATE EPEA: MAIATZAK 10

## Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu Debagunek

Datorren domekan, maiatzaren 14an, Herri Urrats, Iparraldeko ikastolen aldeko jaia, ospatuko da Senperen. Hori horrela, autobusak antolatu ditu Debagunek hara joan nahi duten debagoien-darrendako. Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik irten-go dira autobusak. Interesatuak esandako herrietako euskara elkar-teetan eskura dezakete txartela maiatzaren 10a baino lehen. Txartelen prezioa da 7 euro euskara elkar-teetako bazkideendako eta 10, gainerakoendako. Informazio gehiago izateko, deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

DEBAGOIENA | EKAINAREN 11N IZANGO DA OMENALDIA

## Fusilatuen omenaldi bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Debagoienerako Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen batzordeak ekainaren 11n egingo die omenaldia Espainiako gerran hil eta desageratu zirenei. Arrasaten egingo dute omenaldi ekitaldia, eta, horren ondoren, bazkaria ere egingo dute. Hori horrela, txartelak jarri dituzte salgai ibarreko hainbat herritan bazkarira joateko interesa duten guztiendako: Arrasaten, Meneta tabernan eta Arrasate Kristaldegian eskura daitezke; Aretxabaletan, Gurea tabernan; Oñatin, Altuna estankotan eta, Bergaran, Urkan Digitalen.

Txartelok 15 euroko prezioa dute eta maiatzaren 20ra arte eskuratu ahal izango dira.

## Hitzorduak



## KOLONBIKO INDIGENEN BORROKAREN GAINEKO HITZALDIA IZANGO DA | Arrasaten eta Bergaran egingo du berba indigenen ordezkari batek

Pobrezia Zero plataformaren eskutik, Kolonbiako mugimendu indigenaren, eta komunitate horren egoeraren eta erresistentziaren gaineko hitzaldiak izango dira Arrasaten eta Bergaran. Arrasatekoa bihar, martitzena, izango da Monterronen, 19:00etan, eta Bergararokoa etzi, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean.

Luis Evelis Andrade kolonbiar indigenak egingo ditu berbaldiak. Medellingo Ikasketa Etnikoen Zentroko sortzailea, Lider Indigenen Formaziorako Eskolako irakaslea eta Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionalako presidentea da. Kolonbiako Embara herriko kidea da.

## ARETXABALETAK |

• **Udalekuean begirale izan gura dutenei dei egiten diete** Udalak antolatu dituen udalekuean begirale lan egin gura dutenek curriculum bidali behar dute kultura etxera, postaz edo e-postaz ([kultura@aretxabaleta.net](mailto:kultura@aretxabaleta.net)). Zuzendaritzan parte hartu gura dutenek hala adierazi beharko dute.

## ARRASATE |

• **Hasiberriendako taila ikastaroan izenematea** Hasiberriendako taila ikastaroa antolatu du ARTEK, Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Izena emateko, deitu honakoei, gaez: Jose Mari (943 79 77 57) edo Felix (943 79 40 79).

• **Hainbat ikastaro dago Emakume Txokoan** Honako ikastaroak hasiko dira maiatz hasieran: etxetresna elektrikoaren konponketa; autoen mekanika eta mantentze-lanak; argazkigintza digitala; eta nork bere burua defendatzeko. Argibideetarako, deitu 943 79 41 39 zenbakira.

## BERGARA |

• **1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute laster** 27an jaiotakoek bazkarirako izena emateko, 15 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0009 17 0091113643.

• **Intelligentzia emozionala haurrengan hitzaldia**

Hitzaldi hori egingo du Eraberri taldeak bihar, martitzena, Mariaren Lagundian, 18:00etan.

• **Koadrilen Eguna antolatzeko batzarra**

Mendekoste jaietako Koadrilen Eguna antolatzeko batzarra deitu du Udalak biharko, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

• **Sarara irteera antolatu dute San Joxepeko erretiratuek** Sarara irteera antolatu dute San Joxepeko erretiratuek hilaren 24rako, eguaztena. Hango kobazuloak bisitatuko dituzte.

• **Udaleku irekietan ibili nahi duten umeen izenematea** Udaleku irekietan izena emateko aukera dute umeek maiatzaren 3tik 12ra, Xipizaro ludotekan, 17:00-19:00.

• **49an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute** Maiatzaren 13an bazkalduko dute Tartufo jatetxean. Autobusa izango dute. Izenematea zabalik dago Tartufon bertan.

## DEBAGOIENA |

• **Herri Urratsera joateko autobusak antolatu dituzte** Herri Urrats jaialdira joateko autobusak antolatu ditu Debagunek Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik. Izene-

matea zabalik dago euskara elkar-teetan.

## OÑATI |

• **Parkinson gaitzaren inguruko hitzaldia egingo dute** Parkinson gaixotasunaren inguruko hitzaldia egingo du Gipuzkoako Parkinsonen Elkarteak bihar, martitzena, kultura etxean, 17:30ean.

• **Emakumeak kooperatiben zuzendaritza** *Emakumeak kooperatiben zuzendaritza eta gobernu karguetan* delako ikerketaren emaitzak azalduko ditu MCCK. Hilaren 11n izango da ETEOn, 18:30ean.

• **Gaixoei laguntzearen gainean berba egingo dute** *Gaixoei laguntzeko era ezberdinak* delako hitzaldia egingo dute etzi, eguaztena, parrokiako lokaletan, 18:00etan.

• **Uztaileko udaleku irekietarako begiraleak behar** Uztaileko udaleku irekietarako begirale deialdia egin du Udalak. Maiatzaren 15era arte eman daitezke izena, eta curriculum, argazkia eta NAREN fotokopia eraman behar dira.

• **Nerabezaroa aztertuko dute Guraso Eskolan** Nerabezaroaren gaineko jardunaldiak hasiko dira bihar, martitzena, Guraso Eskolan (Gaztelekuan), 14:45ean. Argibideak: 943 03 77 00.



# PEUGEOT 207 BERRIA

Ez da auto hutsa, zerbait zirraragarriagoa da.



# ZIORLA AUTOAK

PEUGEOT

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL

## Arrasate hizpide

### DEBARRI

Inazio Lakuntza Arrasateko  
alkatearekin berbetan

Eguaztenean, maiatzaren 10ean, 21:45ean

Alberto Gorritibereak aurkeztuta

Zure galderak egiteko:

[www.goiena.net/eztabaidak](http://www.goiena.net/eztabaidak)

DEBARRI: BABESLEA



ARRASATE-ARETXABALETA



**Ikustekoa!**





# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Arrasateko musika kontserbatorioaren egoera kaskarra

Arrasateko irakurle batek ondorengo txistua bidali digu, bere ustez, Arrasateko musika eskola txukunagoa merezi duelako. "Penagarria iruditzen zait eraikin horren egoera. Horrenbeste jende mugitzen duen musika eskolak egoitza txukunagoa merezi duela uste dut. Argi gera dadila nire txistua eraikinari zuzenduta dagoela, inolaz ere bertako irakasle taldeari. Lan bikaina egiten ari direla esan beharra dago. Are gehiago, eraikinaren egoera zein den ikusita. Ez dute meritu makala. Maila handiko irakasleak ditugu".

### • Elgetako frontoi berria garestia da

Beste irakurle batek txistua bidali digu Elgetako frontoia berri duenetik gehiago ordaindu behar duelako frontoia erabilera. "Frontoia oso ondo gelditu da, baina ondo nabaritzen ari gara hori gure poltsikoetan. Bikoiztu egin da frontoia erabiltzearen orduko ordaindu beharreko prezioa, eta igoera hori askotxo iruditzen zait. Zein da helburua? Frontoia berri eta inork ez erabiltzea?".

### • Liburu azoka polita egin zuten Eskoriatzan

Txalorik ere jaso dugu asteon. Ondorengo irakurleak joan zen asteburuan Eskoriatzako liburu azokako antolatzaileak txalotu nahi ditu. "Ekimen polita eta originala iruditu zitzaizkidan, batez ere etorkinekin egindako irakurketa saioa. Hamaika hizkuntza entzuteko aukera izan genuen, eta garrantzitsua deritzot horrelako ekitaldiak antolatzeari etorkinak gurean lehenbailehen integratzeko. Pozik ikusi nituen Eskoriatzako herritarren aurrean euren hizkuntzak aurkezten".

## Sarean harrapatuta

### Animalia eta landare espezieen galera azkartzen ari da

Arriskuan diren animalien eta landareen aurtengo zerrenda argitaratu du Kontserbaziorako Mundu Batasunak (IUCN); 16.119 espezie daude zerrenda gorrian. Arriskuan daude ikerturiko espezieen herenak, hiru

antibiotik bat, koniferen laurdenak eta lau ugaztunetik bat. Bioaniztasunaren galera azkartzen ari da, gainera. Gai horren gainean galdetu dute *Goiena.net*-eko eztabaidan. Hemen jaso ditugu zenbait iritzi.

### BERDEGUNEAK ERE GUTXIAGO DITUGU

Azkartzen doa, eta ez badugu zerbait egiten azkarrago joango da. Animalia eta landareen habitat naturalak apurtzen gabiltza, geroz eta berdegune gutxiago daukagu eta horrek azkenean denean eragiten du.

Rober / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### EZIN DA ZAIN EGON DENA HONDATU ARTE

Desagerpenen joera hori geldiarazteko gobernuek ingurumen arloko inbertsioak handi ditzaten eskatu behar da. Eta suntsipen horretan gizakiak izan duen eragina erabakigarria da. Izan ere, indartsuenaren legea espezieen arteko hautaketa naturaleko prozesu bat den arren, gizakion parte-hartzearen eraginez desagertze erritmoa naturala baino askoz handiagoa izaten ari da azken urteotan.

Hori geldiarazteko denok egin behar dugu zerbait. Baina ez gara gobernuen zain egon behar; herri-rik hasten bagara eskatzen iritsiko dira gora eskaerak eta egingo dute zerbait. Ez dugu natura dena izorratu arte zain egon behar.

Naturala / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### KANPAINAK EGIN SENTSIBILIZATZEKO

### URA DESAGERTUKO DA LASTER

Natura gizakiok suntsituko dugu. Espezie askoren galera guk eragin dugu. Honek ondorio larriak ekarriko dizkigu etorkizun hurbil batean. Esaterako ekosistema aldatu egingo dugu. Hori guztia gure kalterako izango da. Animaliak desagertzeaz gain, naturan ere kalte handiak eragingo ditu. Hori guztia, noski, ura edota klimarekin lotuta dago. Ura desagertuz gero ea nola demontre bizi behar dugun. Eta zer esanik ez klima aldatetaz. Dagoeneko igartzen hasi gara: uholdeak, tsunamiak, lurrikarak, glaziarren urtzea...

Ura / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Arrazoa duzu Ura, baina hori guztia gure eskuetan dago. Guztiok jarri behar dugu gure partetik. Badaude neurri batzuk (berrerabiltzea, garraio publikoa, ehiza babestua...) baina ez da nahikoa. Gutxi batzuk egiten badugu ez dugu ezer konponduko. Legeak ere hor daude baina horiekin ere gutxi egiten diete kasu.

Agenda21 ere ideia ona da baina gehiago egin behar dugu. Gure etorkizunean pentsatu eta geure seme alabengan. Horretarako gaztetxoak kontzientziatu eta sentsibilizatu behar dira kanpaina ezberdinekin.

Ekologista / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### EKONOMIA EREDUA ALDATU BEHAR DA

Gizakia gizaki den momentutik natura eraldatzen ari da. Naturaren ordena suntsitzen joan gara, eta ari gara, natura berak buelta eman eta gu zulora bidali arte.

Birziklatzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa guztiok egingo ere. Legeak antzuak dira, ez dute ezertarako balio: gero eta lege gehiago daude eta kutsadura handitzen doa. Agenda21 ere denbora galtze bat, politikoen beste trikimailu bat. Ikusiko dugu zer eragiten duen ekintza honek. Sentsibilizazioa ondo, baina zein mailatan? Eta zeintzuk dira sentsibilizazio hori behar dutenak? Hiritarrek ala hor goian daudenak?

Gakoa gure ekonomia aurreratu eta librean dago. Eredua aldatu ezean berdin dio birziklatzen dugun, hortzak garbitzean ura ixten dugun, argia itzaltzen dugun edo dena delakoa.

Ez-ekologista / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Boliviako erregaien nazionalizazioak zein ondorio ekar ditzake? Onartuko dute multinazionalak?



**DABID LAZKANOITURBURU** | 'GARA'-KO NAZIONARTEKO SAILA

Neurri horrek Hego Amerikako herrien borroka indartuko du. Multinazionalak ez dituzte horrelako erabakiak sekula onartzen, inposatu egin behar zaizkie. Saia-tuko dira Boliviak aurrean dituen erronkak oztopatzen, baina azkenean amore eman beharko dute negozioan jarraitu nahi badute.



**ANTXON MENDIZABAL** | EHU-KO EKONOMIA IRAKASLEA

Arrisku handiko ekimena da, multinazionalen boikota eta nazioarteko merkataritza erakundearen isolamendua ekar dezakeelako. Baina herri pobre baten justizia eskakizuna da, azken baten. Morales egindako promesak betetzen ari da. Neoliberalismoak miseria besterik ez du eraman Boliviara.



**JOSE ANGEL MIKEO** | MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Multinazionalak ez dute erraz onartuko, baina ez dute beste biderik. Herrialde orok dauka bere baliabideak herriaren onurarako kudeatzeko eskubidea. Kanpora begira Moralesek badaki nor duen lagun. Iguazuko bileran argi geratu zen Hego Amerikako zenbait nazioaren arteko akordioa.



**AINHOA LARRAÑAGA** | LANKI ELKARTEA

Zilegia da Boliviak bere baliabide naturalak defendatzea. Asko ditu eta kanpo zor handia dauka. Multinazionalak neurriaren kontra agertu dira, baina ez dut uste orain arteko negozioari uko egingo diotenik. Boliviak, bestalde, beharrezkoak ditu, ez dauka-eta ustiatzeko gaitasunik.



## Egunkarietako harribitziak

### KALE ITSUTIK IRTETEN JAKIN EZINDA

Kale itsu batean sartuta daude aspalditik Doako liberalizazio errondaren negoziazioak. Urtebete baino ez da falta erronda amaitzeko eta oraindik negoziazioen korapiloa askatzen ez du asmatu Munduko Merkataritza Erakundeak. Akordiorik ezean, AEBek ahalmena izango dute itun oro blokeatzeko.

'Berria'  
2006-05-07



### ASTELEHENETAN %20 GEHIAGO HILTZEN GARA


Erresuma Batuan egindako azterketa batek dio astelehenetan areagotu egiten dela infartua izateko arriskua; batik bat, goizaldeko seietatik hamarretara bitartean. Azterketak dio estres psikologikoak zeresan handia duela horretan: areagotu egiten du arriskua, batez ere 50 urtetik beherakoetan. Horren haritik, gehitzen du Lehenengo Munduan astelehenetan asteko beste

edozein egunetan baino %20 infartu gehiago gertatzen direla gizonezkoen kasuan, eta %15 emakumezkoen dagokienez. Horrekin batera, AEBak eta Europa dira astelehenetan infartu gehien izaten dituzten herrialdeak. Txinan asteburuetan areagotzen ei dira eta Japonian, gizonen kasuan astelehenetan eta emakumeen kasuan zapatuetan.

'El Mundo'  
2006-05-07



## Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2006-V-07

## Zorroztailea



## Pozoitutako ezitia

*Pirinioetan bertze hiru hartz askatzeko xedea eten du Frantziako Gobernuak. Joan den astean Pirinioetako artzainek protesta ikusgarria egin zuten bi hartz askatu zituztelarik. Horrekin batera gobernuaren erabakiaren kontrako helegitea jarri zuten (...). Bigorreko Bagneres herrian pozoitutako eziti poteak atzeman dituzte. Bagneresetik hurbil askatu zuten hartz bat.*

'Berria' | 2005-05-06

Juan Luis Azkarate

Beste mito bat deuseztaturik. Europako hegoaldeko kalekumeok, hiriko sasiekologista furgonetadunok, eta abarrok, Brocbeck Mountainean agertzen diren paisaiak guretzako sekula ez direla izango jakinik, hartzek lokatzean utzitako arrasto nimitxo edo gorozki puska batekin, edo gabez eta infragorriekin Camili ostutako irudi batekin, bakarrik horrekin, konformatzen ginen, baina artzainek ezetz, ez dutela hartzik nahi argi eta garbi azaldu dute.

John Irving idazleak askatasunari buruzko alegoria egin zuen *Setting Free the Bears* (Askatasuna Hartzentzako) eleberri ospetsuan, non 60ko hamarkadan bi hippie motorzalek Vienako zootik hartz guztiak askatzen zituzten. Berrogei urte beran-

duago, Esloveniatik ekarritako hartzak Pirinioetan ez dira ongi etorriak. Kasu honetan ez da progreso ero eta suntsitzailearen erruz, artzain talde baten presioagatik baino. Ziurrenik, artzainak aurrez hartutako erabaki oker batzuen biktimak izango ziren; baina artzainek erabaki dute Pirinioetan ez dagoela lekurik hartzak eta ardiak elkarrekin bizitzeko. Tristeena, hala ere, basapiztien etsairik amorratuenak artzainak direla jakitea, eta ez hotelen edo eski-pisten eraikitzaileak. Denborarekin, behin eta berriro joaten gara konturatzeko ipuinaren gaiztoa ez zela otsoa, Txanogorritxo baino.

Albiste hauek irakurri ondoren, non geldituko da artzainei buruz geneukan irudi idealizatua? Paradisu bukolikoa lokatzean deuseztatu egin zaigu, pozoitutako ezitiak lokatzen.

**"Tristeena basapiztien etsairik amorratuenak artzainak direla jakitea, eta ez hotel edo eski-pisten eraikitzaileak"**

**"Non geldituko da artzainei buruz geneukan irudi idealizatua? Paradisu bukolikoa lokatzean deuseztatu zaigu"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

ELKARRIZKETA

"Lehen fasean normalizazio politikorako akordioaren bat lortu behar dugu. Argi dago lortu beharreko akordioak euskal gizartearen erabakitze eskubidea jasota izan beharko duela. Bestetik, pentsatu behar dugu nola gauzatu eskubide hori. Madrilen esan nuen moduan, Euskal Herriak bere etorkizuna eztabaidatzeko eskubidea du".

Juan Jose Ibarretxe  
2006-05-07

### 'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"Alderdien mahaia osatzea ETari saria ematea dela uste dut. Batasunak Anoetan egindako proposamen bera da eta ETak babestu egin zuen. (...) PP ez da mahai horretan jarriko, Batasuna delako erakunde terrorista eta legez kanpokoa, auzitegiek esan bezala. PP parlamentuan jartzen da, hori da eta euskaldunek aukeratu dutena.

Mariano Rajoy  
2006-05-07

### 'Gara'

PROZESU DEMOKRATIKOA NAFARROAN

"Nafarrek libre eta demokratikoki hautatutakoa errespetatu dugu, inongo mugarik gabe. Gure galdera sinplea da eta Miguel Sanzek zein Carlos Chivitek erantzutea nahi dugu: prest zaudete nafarrek libre eta demokratikoki erabakitakoa errespetatzeko? Ausartak izan eta eman urrats hori. 25 urte igaro eta gero beste aukera bat dago".

Pernando Barrena  
2006-05-07

### 'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"Garrantzitsua da presoen gaia legalitatearen barruan jorratzea eta testuingurutik kanpo. Arazoa izango litzateke erabakiak hartzea egoeraz baliatuta. Geston uste dugu presoen hurbilketa arrazoi humanitarioengatik egin behar dela; su-etenarekin lotuz gero, negatiboa litzateke eta baita arriskutsua ere".

Jesus Herrero  
2006-05-07



# KIROLA

- Eskubaloian, Bergarak sailkapeneko 2. lekuan jarraitzen du Kopan | 14
- Eskoriatzako neskek azken partidua irabazi arren, maila galdu dute | 15



**Itsaso Egaña**  
Akaba Bera Bera  
Eskubaloian taldeko  
jokalariarekin egon  
gara hizketan | 19

## PREFERENTE MAILA

### ALOÑA MENDI

# 2-1

### MUTRIKU

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Olalde, Astola, Barrena, Idigoras, Igartua, U. Arregi, I. Arregi (Garmendia, 59. min.), Lopez (Bazan, 60. min.), Zubia (Aramendi, 80. min.) eta Elgarresta.

**Mutriku** | Eka, Ibon, Aitzol, Tubiño, Pagoaga, Jon Andoni, Txurruka, Ruiz (Urritz, 82. min.), Galdona (Arreitu, 71. min.), Arostegi (Azkarate, 68. min.) eta Kaltxakorta (Uso, 73. min.).

**Golak:** | 0-1 Arostegi (40. min.), 1-1 Bazan (72. min.), 2-1 Bazan (85. min.).

**Epailea** | Ayesa jauna. Partidua asko nahastu zitzaion, batez ere bigarren zatian. Mutrikuko bost jokalarikaleratu zituen.

**Bestelakoak** | Partidua hasi aurretik euria egin bazuen ere, ikusle dezente hurbildu zen Azkoagainera.

### Bikain

#### HENRY BAZAN

60. minutuan irten zen futbol zelaira eta bi gol egin zituen. Lehena taldeak egindako jokaldi baten ondoren eta bigarrena areaz kanpotik egindako jaurtiketa batean.

### Kaskar

#### TXARTEL ASKO

Epaileak Mutrikuko jokalariek zigortu zituen, batez ere. 16. minuturako bi txartel hori ateratu zituen. Azkeneko minutuetan ere txartel ugari atera zituen; batzuk, gainera, gorri kolorekoak.

### Esandakoak

"Orokorrean partidu interesgarria jokatu dugu. Kanporaketekin, baina, lehia apurtu egin da".

"Urtariletik gure esku dago 3. mailarako igoera. Eta oraindik ere guk irabazi edo galduko dugu igoera hori".

**HENRY BAZAN** | ALOÑAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Arregik izan zuen aukerarik gola egiteko, batez ere lehenengo zatian.

**FUTBOLA** | URREZKO PUNTUAK LORTU DITU ALOÑA MENDIK

# Henry Bazanek eman zion garaipena Aloña Mendiri

*Partidua ordua baino lehenago amaitu zen, Mutriku sei jokalarirekin gelditu baitzen; horrek zigorra ekarriko die mutrikuarrei*

Mireia Bikuña

Kostata baina garaipen garrantzitsua lortu zuen Aloña Mendik. Real Unionek asteburuan berdindu besterik ez zuen egin, eta horrek berriro lau puntuko alde ematen dio Aloña Mendiri sailkapenean.

#### MUTRIKUK LEHEN GOLA

Lehenengo zatian zelai erdiko jokoa izan zen nagusi. Horregatik, beharbada, ez zuten gol aukera garbirik sortu. Iñigo Arregik

8. minutuan jaurtiketa egin zuen, baina atezainak ondo erantzun zuen. 20. minutuan Iñigok aukera izan zuen berriro, baina errematea gora joan zitzaion.

Bitartean Mutrikuko jokalariek txartel horiak ikusten hasi ziren, partidu amaieran ondorio txarrak ekarriko zizkieten txartelak. Mutrikuk gola egin zuen atsedenean aurretik, 41. minutuan. Arostegik baloia atezainaren gorputzaren azpitik sarera sartu zuen. Hurrengo jokaldian Aloña Mendik partidua berdintzeko abagunea izan zuen, baina Roberto Idigorasek gehiegi gurutatu zuen baloia. Atsedenean markagailua ikusita, urduritasuna zen nagusi Azkoagainera hurbildutako zaleen artean.

tzeko abagunea izan zuen, baina Roberto Idigorasek gehiegi gurutatu zuen baloia. Atsedenean markagailua ikusita, urduritasuna zen nagusi Azkoagainera hurbildutako zaleen artean.

**Henry Bazanek egin zituen Aloñaren golak; 2.a, ikusgarria**

**Mutrikuko bost jokalarik kanporatu zituen epaileak; partidua bertan behera geratu zen**

#### HENRY BAZANEN GOLAK

Bigarren zatian partidua asko gogortu zen. Aloña garaipenaren bila irten zen eta aukerak izan zituen gola egiteko. Hala, Henry Bazan izan zen golak egin zituena. 74. minutuan lortu zuen lehena jokaldi bikain baten ondoren. Ordurako Mutrikuk bi jokalarik gutxiago zituen.

Aloñak berdinketarekin ez zuen nahiko, eta, ekinaren ekinenez, bigarren gola egin zuen. Bazanek gol ikusgarria egin zuen.

Emaitza horrekin, Mutrikuko jokalariek batek epailea iraindu zuen, nahita, txartel gorria ikusteko. Hala, Mutriku sei jokalarirekin zegoenez, partidua bertan behera geratu zen. 83. minutua zen. Orain, Lehiaketa batzordeak erabaki beharko du Mutrikuri jartzen dion zigorra.



PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

UDAK bi goleko errenta egin zuen 55. minuturako.

# Trintxerpen bisitak beste hiru puntu utzi ditu Ibarrran

UDA  
**2-1**  
TRINTXERPE

UDA | Eriz, Sanchez, Iturbe (Oxel, 83. min.), Arenaza, Unamuno, Arrieta, Orueta (Joseba, 70. min.), Igartua, Arriaga (Beloki, 85. min.), Eriko (Endika, 68. min.) eta Espinosa (Rodriguez, 63. min.).

Trintxerpe | A. Diaz, G. Diaz, Saenz, Solana, Goitiso, M. Diaz, Infante (Auzmendi, 60. min.), Mauleon, Gil, Berasategi, Amunarriz.

Golak: 1-0, Arriaga (penaltiz, 35. min.), 2-0, Eriko (55. min.), 2-1, Berasategi (93. min.).

Epailea: Kepa Sanz.

Larraitz Zeberio

Aretxabaletako taldeak hirugarren jarraitzen du preferente mailako sailkapenean. Asteburuko emaitzarekin, ordea, igora postuetara gehiago hurbildu da. Orain, lau puntura dago.

Atzo, domeka, 2-1 mendean hartu zuen Trintxerpeko taldea. Aretxabaletakoek partidu lasaia izan zuten; izan ere, 35. minutuan aurreratu ziren markagailuan. Hain zuzen ere, penaltia adierazi zuten epaileak etxeko taldearen alde.

Igor Arriaga area barruan heltzeagatik zigortu zuen Trintxerpeko taldea Sanz epaileak, eta Arriaga jokalaria ez zuen jaurtiketan hutsik egin.

## ERIKOK BIGARREN GOLA

Trintxerpe ez zen lehenengo zatian berdinketa lortzeko gauza izan eta atsedeneren ostean etorri zen Aretxabaletako bigarren tantoa, Erikok egindakoa.

Bi goleko errentarekin lasai hartu zuten bigarren zatia Felix Reciorenen mutilek. Trintxerpeko jokalaria saiatu ziren jokaldi eraginkorrak egiten, baina ez zuten emaitza txukuntzerik izan. Partiduko azken jokaldian lortu zuten norgehiagokako gol bakarra. Berasategik gola egin bezain laster adierazi zuen partidua amaiera Sanz epaileak.

Horren harira, igoerako postuen lehian jarraitzen du UDAK, eta liga amaitzeko hiru partidu gelditzen dira.

# Irungo taldeak merezita irabazi zuen Atxabalpen

MONDRA  
**1-3**  
IRUN 1902

A.G.

Motibazio handiarekin zelairatu ziren atzo, domeka, Irun 1902 taldeko jokalaria Atxabalpen. Ez zuten Mondrak baino joko askoz ere hobe erakutsi, baina golak

egin zituzten eta futbolearen horrek balio du. Lehenengo zatian bi gol egitea lortu zuten eta atsedenerako errenta hori zuten euren alde.

## MONDRA PUNTU BARIK

Bigarren zatian hirugarrena sartzea lortu zuten Irundarrek. Mondrak gol bakarra egin zuen. Ez zen 81. minutura arte iritsi eta Ekainek egin zuen.

Ez zen ordea nahiko izan eta puntu barik gelditu dira Arrasatekoak asteburu honetan ere. Taldeak 10. postuan jarraitzen du.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	SAILKAPENA						
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Real Union-Berio	1-1						
Mondra-Irun 1902	1-3						
Allerru-Anaitasuna	0-4						
Zestoa-Hondarribia	1-1						
UDA-Trintxerpe	2-1						
Touring-Hernani	1-2						
Pasaia-Zarautz	1-2						
Orioko-Ordizia	1-0						
Aloña Mendi-Mutriku	2-1						
Idiazabal-Beti Gazte	2-0						
HURRENGOAK							
Irun 1902-Berio							
Anaitasuna-Mondra							
Hondarribia-Allerru							
Trintxerpe-Zestoa							
Hernani-UDA							
Zarautz-Touring							
Ordizia-Pasaia							
Mutriku-Orioko							
Beti Gazte-Aloña Mendi							
Idiazabal-Real Union							

## Lehenengo Erregionala

# Igoera faserako txartela oraindik ere zintzilik

ILINTXA  
**1-1**  
BERGARA

A.G.

Bergarari uste baino gogorragoa egin zitzaion Legazpiko Ilintxa taldearen aurkako neurketa. Legazpiarrek egin zuten gola lehenengo, 75. minutuan. Zorionez, mahoneroek berdintzea lor-

tu zuten Jon Urteagaren golari esker. Epailea ez zuten lagun izan, beste behin, Josu Zubiaren mutilek. Ez zituen mahoneroen aldeko hiru penalti oso garbi adierazi, eta haserre agertu dira taldeko arduradunak.

Asko dute jokoan Bergarakoek. Multzoko bi taldek izango dute igoera fasea jokatzen auzerara. Bata Urola izango da. Bigarren txartelerako, ordea, lehia handia dute Bergarak eta Zumaiakok. Oso alde txikia dago bi taldeen artean eta asteburuko emaitzen ondotik are eta txikiagoa da alde hori sailkapenean.

## BEREBIZIKO GARRANTZIA

Datorren asteburuan etxean jokatuko du Bergarak. Elgoibarko Pedrusko taldea hartuko dute Ipintzan Zubiaren mutilek. Eta berebiziko garrantzia du, igoera faserako txartela lortzeko azken aukera izango baita Bergararendako.

Mahoneroek bigarren postuan jarraitzen dute, baina Zumaiakorekin puntutan berdinduta. Datorren astean, beraz, ezinbestekoa izango dute irabaztea edo Zumaiakoren emaitza berdintzea. Ipintzan, beraz, inoiz baino garrantzitsuagoa izango da jarraitzaileen bultzada.

## 2. erregionala, Igoera Txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

## ANTZUOLA 2-3 GALDU ZUEN.

Gol asko ikusi ziren zapatuan Estala futbol zelaietan. Antzuola baina, markagailuan beti atzetik egon zen. 0-1 eta 1-2koarekin, Berraondok eta Zabalok berdinketaren golak egin zituzten. Baina Sanpedrotarrak taldeak azken minututan lortutako hirugarren golak partidua erabaki zuen. Bi partidu geratzen dira igoera fasea amaitzeko.



• KOPA TXAPELKETA, SENIOR MAILAKO MUTILAK

# Bergarak gero eta gertuago ditu Kopako finalerdiak

*Mahoneroek partidu ona egin zuten eta erraz hartu zuten mendean Oñatiko taldea*



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Bergarako jokalariek joko ona egin zuten bai erasoan zein defentsan.

**BERGARA**  
**40-28**  
ARRIKRUTZ OÑATI

**Bergara** | Kapelastegi, Uribe (4), Larrañaga (5), Agirre (4), Pozo (1), X. Najera (2), I. Najera (1), Zabaleta (2), Lenisoro (10), Zangitu eta Plazaola (11).

**Arrikruz** | R. Gartzia (2), Arregi (2), Bernal (8), Zulueta (6), J.M. Gartzia (8), Hernandez, Astigarraga (1) eta E. Gartzia (1).

**Golak**: 2-3, 7-5, 11-8, 15-10, 16-12, 20-15. (atsedena), 23-18, 26-20, 30-23, 33-25, 35-25, 40-28.

Larraitz Zeberio

Bergarak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen, zapatuko derbian, Kopa Txapelketako finalerdietarako sailkatzeko. Aloñaren aurkako derbia jokatu zuen Labegaraletan, eta 40-28 hartu zituen mendean oñatiarrak. Partiduko lehenengo minutuak nahiko berdinduak izan

baziren ere, mahoneroek aldea zabaltzea lortu zuten 10. minutetik aurrera. Eta errenta handitzen joan ziren partidu amaierara arte.

## OÑATIARRAK GOGOR

Partidu hasieran oñatiarrak jarri ziren aurretik markagailuan, baina gutxi iraun zuen egoera horrek; izan ere, 4-4 egin ostean

mahoneroak egin ziren baloiaren jabe eta txantxikuei ezinezkoa egin zitzaizen handik aurrera markagailuari buelta ematea.

Bergarako atezainen lana benetan ona izan zen, taldeko gainerako jokalariei meriturik kendu gabe. Taldeko jokaldiak egiten ditu Bergarak, eta nabarmena izan zen ate aurrean Plazaola eta Lenisororen lana.

## FINALERDIAK PAUSO BATERA

Bergarak bertan ditu Kopa Txapelketako finalerdiak. Muniategiren mutilak lan oso txukuna egiten ari dira Kopan eta datorren asteburuko izango dute azken neurketa finalerdiak baino lehen. Bergarak bere multzoko lehenengo postuan amaitu nahi du txapelketa, hartara etxean jokatu baitu finalerdia.

• LEHENENGO TERRITORIALA, IGOERA TXAPELKETA

# Ford Mugarrik lider jarraitzen du, Urdulizen aurka galdu arren

**URDULIZ**  
**31-28**  
FORD MUGARRI

Mireia Bikuña

Urdulizen galdu arren, Ford Mugarrik sailkapeneko lehenengo tokian jarraitzen du. Baina sailkapena asko estutu da, Urdanetak eta Donibanek irabazi egin baitute aste bukaeran.

Dena den, arrasatearrek euren esku dute igoera txartela.

## BIGARREN ZATIAN GAIZKI FORD MUGARRI

Lehenengo zatian lan ona egin zuen Arandoren taldeak. Defentsan sendo aritu ziren eta erasoan ideiak garbi izan zituzten. Atsedenean lau goleko errenta zuen Ford Mugarrik (14-18). Baina bigarren zatian erabat aldatu zen partiduak. Arrasatearrek kontzentrazioa galdu zuten, eta erasoan eta defentsan huts gehiegi egin. Aldaketetan ere ez zuen asmatu Arandok. Eta Urdulizek buelta eman zion partiduari.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Ford Mugarriren defentsak huts gehiegitxo egin zituen 2. zatian.

• KOPA TXAPELKETA.

## Kopako finala jokatu dute arrasatearrek

Mireia Bikuña

Liga Txapelketa irabazi ondotik, Gatz Museoa Jakionek Kopa Txapelketako finala jokatu du. Asteburuan Zumaian 27-31 irabazi eta gero, arrasatearrek kopako finalerako txartela eskuratu dute. Hala, eskubaloibatzordeak jokalariek zoriondu gura ditu egindako lanagatik.

## JOKALARI GUTXI

Pulporen kontrako lehen zatia oso parekatua izan zen. Atsedenean etxeko taldea zen aurretik (14-13). Eta partidu amaitzeko hamar minutu falta zirela erabaki zuten lehia arrasatearrek. Eta hori, bederatz jokalarirekin bakarrik jokatu Pulporen aurka.

• GAZTE NESKAK

## Verkol Aloñak partidu oso txarra egin zuen

A.G.

Entrenatzailea haserre dago. Domeka goizean oso gaizki jokatu zuten Bera Beraren aurka taldeko neskek, eta jakin badaki San Migel Txikiak zerikusi handia izan dutela.

Donostiako taldea neurketa hasieratik jarri zen aurretik eta laster zabaldu zuen behar adinako tartea, amaierara arte partidu lasaitasunez jokatzeko. Azkenean, 25-19 amaitu zen norgehiagoka.

Datorren astean etxean jokatu du Verkol Aloñak. Elgoibarko Cometel taldearen bisita jasoko du. Ordurako gaudituta egongo ote dira San Migel Txikiak biharamunaren ondorioak...

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### EUSKADIKO IGOERA TXAPELKETA

Gusla Urduliz-Ford Mugarri Arrasate 31-28

#### KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA

Bergara-Arrikutz Oñatiko Kobak 40-28

#### GAZTE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA

Aloña Mendi atsedena

Leizaran-Bergara 34-31

Pulpo-Gatz Museoa Jakion 27-31

#### GAZTE NESKAK. KOPA TXAPELKETA

Bera Bera-Verkol Aloña 25-19

Leizaran-Bergara 21-23

#### KADETE MUTILAK. KOPA TXAPELKETA

Gatz Museoa-Urola Azti 21-41

#### KADETE NESKAK. KOPA TXAPELKETA

Bera Bera-Verkol Aloña 12-33



• SEIKO FINALA, EBA LIGARAKO IGOERA

# Arrasatek ez du igoera txartelik lortu

Zaragozako Unibertsitateko taldea zen Mugarri Alkesakoen lehenengo oztopoa, eta, gutxirigatik izan bazen ere, ezin izan zuten gaingiditu

ZARAGOZAKO UNIBERTS.

95-85

MUGARRI ALKESA

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (18), Domingo, Mallabiarrena (12), M. Biain, Kintana (19), Alartzia (19), Aranburu eta I. Biain (17).

**Zaragozako Unibertsitatea** | Clerigue, Catalan, Bernal, Perez, Corral, Gonzalez, Bernal eta Rodriguez.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 21-22. Bigarren laurdena 46-44. Hirugarren laurdena 64-65. Laugarren laurdena 95-85.

Larraitz Zeberio

Mailaz igotzeko bi partidu gaingiditu behar zituen Mugarri Alkesak seiko finalean, baina lehenengoan kanporatu zuen Zaragozako taldeak. Gorka Zurututzaren mutilek partidu bikaina egin zuten. Neurketa amaitzeko hiru minutu falta zirela, markagailuak bi puntu

ko diferentzia txikia jasotzen zuen. Azken txanpan, ordea, Zaragozako taldeak lan hobea egin zuen eta Arrasateko taldea kanporatzea lortu zuen.

"Pena handia ematen du hain partidu garrantzitsua azken minutuetan galtzea", esan digu taldeko kapitain Jagoba Gamarrak, "baina onartu behar dugu Zaragozako taldeak partidu oso ona egin zuela. Guk baino hobeto eutsi zioten azken laurdenari".

Seiko Finalean ere bost jokalarirengan jarri zuen Gorka Zurututza entrenatzaileak ardura gutzia; izan ere, Gamarra, Mallabiarrena, Kintana, Alartzia eta Iñigo Biainek ia partidu guztia jokatu zuten.

"Azken emaitzak beste gauza bat adierazten badu ere, hiru minuturen faltan bi puntuko aldea besterik ez zegoen bi taldeen artean", gogoratzen du Gamarrak. "Markagailua 78-76 zegoen. Orduan, Zaragozako jokalariek dena sartu zuten. Bikain aritu ziren bai hirukoetan zein pibote lanetan. Gu baino hobekia izan ziren azken txanpa hartan, eta horrek ez du bueltarik".



NEREA ISASTI

Iruñeko Larraona pabilioian jokatu zuen norgehiagoka Mugarri Alkesak.

**DENBORALDI BIKAINA**

Partiduaren amaiera momentu gogorra izan zen jokalariairengatik zein Iruñeko Larraona pabilioira bertaratutako zaleendako. "Dena egin genuen partidua irabazteko, baina ezinezkoa izan zen. Porrota onartzea gogorra izan zen, baina, egia esan, berehala animatu ginen", dio Gamarrak. "Aurtengoa sekulako denboraldia izan da eta Zaragoza-

ren aurka oso partidu ona egin genuen. Jarraitzaile asko etorri ziren Iruñera gu animatzera eta haien animuak ere oso lagun-garriak izan genituen".

Orain, atseden hartzeko garaia da Mugarri Alkesakoen dako. Ospakizunetarako ere bai, noski. Abuztura arte ez dira berri ere entrenatzeko elkartuko. Orduan hasiko dira denboraldi berriari forma ematen.

• BIGARREN MAILA, NESKAK

**Azken partidua irabazi arren, maila galdu dute eskoriatzarrek**

COBAF

41-48

ESKORIATZA

Mireia Bikuña

Ligako azken partiduan garaipena lortu zuen Eskoriatzako saskibaloitza taldeak. Gustura zeuden partidu amaieran lortutako emaitzarekin.

Garaipen horrek, baina, sailkapena txukuntzeko besterik ez du balio. Izan ere, Eskoriatzako neskek bigarren nazional mailan zuten lekua galdu eta datorren urtean Gipuzkoako Txapelketan jokatu dute.

**PARTIDU PAREKATUA**

Cobaf eta Eskoriatza antzerako taldeak direla erakutsi zuten kan txan. Eskoriatza izan zen, ordea, hasieratik aldea hartu zue-na. Lehenengo hiru laurdenetan ondo menderatu zuten norgehiagoka eskoriatzarrek. Erasoan eta defentsan ondo jokatu zuen Javi Corbalen taldeak. Etxeko taldeak, hala ere, ez zuen partidua galdutzat eman.

Hala, laugarren laurdenean etxeko taldeak markagailuko desabantaila bost puntuan utzi zuen. Orduan, Corbalen taldeak hiruko saskiratzeekin partidua erabakita utzi zuen. Eta garaipenarekin itzuli ziren etxera. Eskoriatzak ligako bi partiduak irabazi dizkio Cobaf taldeari.

• GIPUZKOAKO LIGA, SENIOR NESKAK

# Porrota ligako azken partiduan

ALOÑA MENDI

26-54

EASO LOYOLA

**Aloña Mendi** | Ugarte (2), Piko, Losada (4), Maiztegi, Etxeberria (2), Lopez (8), Urmeneta, Legaristi, Urkia (2), Artzamedendi (6) eta Barrena.

**Easo Loyola** | Antza (4), Dominguez, San Jose (4), Gartzia (4), Villena (6), Ikaztegi (9), Formoso (9), Alkorta (1), Galiño (6), Agirre (11) eta Vilariño.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 4-16. Bigarren laurdena 16-25. Hirugarren laurdena 16-36. Laugarren laurdena 26-54.

Mireia Bikuña

Bigarren laurdenean markagailuko aldea murriztu bazuen ere, aukera gutxi izan zuen Aloña Mendik ligako azken partidua irabazteko. Saskiratze gutxi egiten duen taldea da Oñatikoa.

**DONOSTIARRAK AURRETIK**

Lehen laurdenerako Donostiako taldeak 12 puntuko tarte zabaldu zuen markagailuan. Oñatiarrak, baina, ez ziren kikildu eta bigarren laurdenean jokoa hobetu zuten. Horrek aukera eman zien saskiratze gehiago lortzeko. Atsedenean bederatzi puntuko



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñako neskek ligako azken partidua jokatu zuten zapatuan.

aldea zuen Easo-Loyolak. Hirugarren laurdenean, aldiz, oñatiarrak ez zuten punturik egin eta irabazteko aukerak galdu zituz-

ten. Azken laurdenean zortzi puntu egin zituen Aloñak. Horrenbestez, liga amaitu dute Aloñako senior mailako neskek.

**Emaitzak**

**MAILAZ MAILA**

**EBA TXAPELKETARA IGOERA**

Zaragoza-Mugarri Alkesa 95-85

**BIGARREN MAILA NESKAK**

COBAF-Eskoriatza 41-48

**SENIOR NESKAK**

Aloña Mendi-Easo Loyola 26-54

**GAZTE MUTILAK**

Mugarri Alkesa-Easo B 54-63

Barcelo Bidaia-Araneta 47-48

Loyola B-Aloña Mendi 49-36

**GAZTE NESKAK**

Eskoriatza-Aloña Mendi 25-30

**KADETE MUTILAK**

Mugarri Alkesa-Easo A 36-49

Aloña Mendi-Zarautz 33-39

**KADETE NESKAK**

Carnica San Marcial-Bergara 52-48

Bera Bera Zurriola-Eskoriatza 37-22



# Eskola kirola

BERGARA

## Gaztetxoak ez ziren bizikletatik jaitsi, eguraldi txarra egin arren

*Gaztetxoak, nor bere bizikleta hartuta hurbildu ziren Mariaren Lagundira*

*Arduradunek askotariko jokoak eta zirkuitu bat zituzten prestatuta*

*Txanda bakoitzean hiru taldetako neska-mutikoen jardun zuten zapatuan*

Geaxi Ezpeleta

Bizikleta gainean harrapatu genituen gaztetxoak Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxearen jolaslekuan zapatu goizean. Arduradunek lau txoko zituzten prestatuta neska-mutikoen bi gorpilengainean euren trebeziak erakusteko. Gune horietan banatuta, askotariko jokoak eta zirkuitu bat izan zituzten txirindulari gazteek euren gozagarri. Alde batean nahiz bestean, eguraldi kaxkarra oztopo izan gabe, poz-pozik ikusi genituen parte-hartzaileak.

Neska-mutikoen bizikleta gainean erakusten zuten abileziak harrituta, zenbaterainoko zaletasuna duten galdetu genien. "Asko gustatzen zaigu eta dezent ibiltzen gara bizikletan", izan zen gehien erantzuna. Gainera, eguraldi hobea egiten hasteko desiratzen daudela ere adierazi ziguten, bizikleta gainean gehiago ibiltzeko.

### PARTIDUETAN BAINO PARTE-HARTZE TXIKIAGOA

Partidurik ez dagoen jardunaldietan ohikoa den bezala, zapatu goizean ohi baino gaztetxo gutxiago batu ziren.

Hala, hurrengorako gaztetxo guztiak parte hartzerantz animatu nahi ditugu, ikusi genuenez partiduetan bezain ondo edo hobeto pasa daitekeelako.



GEAXI EZPELETA

**San Martin B.** Joseba, Marian, Karmele, Unai, Iker eta Ander hurbildu ziren zapatuan eskola kiroleko jardunaldira.



GEAXI EZPELETA

**Mariaren Lagundia B.** Amaia, Izar, Idoia, Unai, Jokin eta Eneko azaldu ziren taldea ordezkatzera.



GEAXI EZPELETA

**Aranzadi 2.** Andoni, Javi, Gloria eta Aitor hurbildu ziren zapatu goizean Mariaren Lagundia ikastetxera, bizikletak lagun hartuta.



GEAXI EZPELETA

**San Martin A.** Gorka eta Ander soilik azaldu ziren zapatu goizean bizikletako jardunaldian parte hartzerantz.

### • BIZIKLETA LAGUN DUTE GAZTETXO GEHIENEK



**IZAR, IDOIA ETA UNAI | MARIAREN LAGUNDIA A**

"Dezente ibiltzen gara bizikletan eta asko gustatzen zaigu, gainera. Dena den, jokoak gure kontura ez ditugu egiten eta gaur hona etortzeko gogo handiz geunden. Oso ondo pasatzen dugu".



**JOKIN, ANDONI ETA JOANES | ARANZADI B**

"Egunero ez ibili arren, nahiko ibiltzen gara esan behar dugu. Baina batez ere eguraldi ona egiten duenean ateratzen ditugu gure bizikletak kalera. Eguraldi txarrarekin ezin baita gustura ibili".



**UNAI, IKER ETA KEPA | SAN MARTIN C**

"Asko ibiltzen gara gu bizikleta gainean. Aste bukaeretan lagunok elkartu eta buelta bat ematera joaten gara. Gainera, eguraldi onak etortzeko desiratzen gaude, eguna gehiago aprobeatza daitekeelako".



**MARIAN ETA KARMELE | SAN MARTIN B**

"Gu gutxitan ibiltzen gara bizikletan. Dena den, eguraldi onak egiten dituen gehiago ibiltzen gara. Gaur egin ditugun jokoen tankerakoak, hala ere, hemen bakarrik egiten ditugu".





JOSETXO ARANTZABAL

Iratxe Aranburu izan zen emakumerik azkarrena helmugan. Harekin batera Zigor Esnaola iritsi zen.

**HERRI LASTERKETA** | 'JANTZI KIROLA EUSKARAZ' LELOA GIDARI EGIN ZUTEN KORRIKA LASTERKARIEK

# Yerai Varela izan zen azkarrena Oñatiko helmugan

*Arrasate-Oñati lasterketak 24. edizioa bete zuen zapatuan, eta 140 korrikalarik hartu zuten parte*

Mireia Bikuña

Pozik iritsi zen Yerai Varela (0:36:46) Oñatiko helmugara. Izan ere, azken urteotan garaipena eskura izan eta ihes egin ondoren, zapatuan fisikoki bikain dagoela erakutsi zuen.

**IRTEERA, GARIBAI PASEALEKUAN**

Urtero legez, Arrasate-Oñati lasterketa Garibai pasealekutik

irten zen. 140 korrikalarik hartu zuten Oñatirako bidea, eta lasterketaren 8. minutua bete orduko lau talde batek hartu zuen aurre: Yerai Varela, Asier Urdanpilleta, Imanol Molinero eta Ekaitz Osa. Laurak Oñatiko korrikalariak.

Elorregira (San Prudentzio) iritsi orduko Yerai Varelak atzean utzi zituen beste hiru korrikalariak. "Lasterketan egin dituen erritmo aldaketak ikaragarriak

izan dira. Fisikoki oso ondo dago eta gainera gaztea da", adierazi zuten Ekaitz Osa eta Asier Urdanpilletak Oñatiko helmugan.

Lasterketaren 15. minutua bete orduko Imanol Molinerok metro batzuk galdu zituen aurreko korrikalarietatik, eta tarte horretan Mendaroko Iker Maxorak aurreko taldearekin bat egin zuen.

**ALDAKETARIK EZ HELMUGARAINO**

Madalenako gasolindegian, lasterketaren 8. kilometroan, Varelak 11 segundoko aldea zuen Ekaitz Osarekin eta 18, Asier Urdanpilletarekin. Iker Maxo-

rak, berriz, atzean utzi zuen Imanol Molinero.

Hala, azken kilometroetan ez zen aldaketarik izan eta ordena horretan iritsi ziren helmugara: Varela, Osa eta Urdanpilleta.

Eta atzetik gainontzeko korrikalariak iritsi ziren. Emakumetan azkarrena Iratxe Aranburu (0:39:51) izan zen.

**DIEGO GARTZIAREN ERREKORRA**

1984an Diego Gartziak egindako errekorra hobetzen zuen korrikalariarentzat -0:34:25- sari berezia zegoen. Zapatuan Varelak ezin izan zuen errekorra hautsi. Datorren urtean izan beharko du.

## Emaitzak

### GIZONEZKOAK

#### Nagusiak

1. Yeray Varela	(0:36:46)
2. Ekaitz Osa	(0:37:09)
3. Asier Urdanpilleta	(0:38:00)
4. Iker Maxora	(0:38:21)
5. Asier Zarraga	(0:38:40)

#### Gazteak

1. Yeray Varela	(0:36:46)
2. Antonio Matilla	(0:45:19)

#### Beteranoak

1. Roberto Zurro	(0:39:28)
2. Julio Pascual	(0:40:18)
3. Aitor Eraña	(0:42:19)
4. Iñigo Eriz	(0:43:18)
5. Jon Arantzabal	(0:43:59)

### EMAKUMEZKOAK

#### Nagusiak

1. Iratxe Aranburu	(0:39:51)
2. Ana Alzugarai	(0:48:48)
3. Marije Velasco	(0:49:53)
4. Elisabeth Perez	(0:50:18)
5. Edurne Elkoroiribe	(0:50:22)

#### Gazteak

1. Sandra Maneiro	(0:52:13)
-------------------	-----------

#### Beteranoak

1. Marije Velasco	(0:49:53)
2. Maria Jose Gil	(0:55:20)
3. Pili Azkarate-Azkazua	(0:57:09)
4. Lorea Gardoki	(1:01:13)
5. Unai Santamaria	(1:17:06)

### LEHENENGO LAIXAN SARIA

1. Asier Osinaga	(0:39:26)
------------------	-----------

### LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

1. Yerai Varela	(0:36:46)
2. Ekaitz Osa	(0:37:09)
3. Asier Urdanpilleta	(0:38:00)
6. Imanol Molinero	(0:39:22)
7. Asier Osinaga	(0:39:26)
8. Roberto Zurro	(0:39:28)
14. Mikel Larrañaga	(0:40:14)
16. Iñaki Pelaio	(0:40:23)
17. Jon Aperribai	(0:40:26)
18. Iker Sarabia	(0:40:53)
19. Juan Sanchez	(0:41:05)
22. Aitor Eraña	(0:42:19)
23. Xabier Iribekanos	(0:42:51)
24. Iñigo Eriz	(0:43:18)
25. Ritxar De Goñi	(0:43:28)
26. Gaizka Romero	(0:43:33)
27. Iban Da Silva	(0:43:37)
28. Jon Arantzabal	(0:43:59)
29. Jose Luis Barrena	(0:44:20)

## • HONELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK LASTERKETA



**YERAI VARELA** | OÑATI LEHENENGO GIZONEZKOA

"Oso pozik iritsi naiz helmugara. Gogo handiz nengoen Arrasate-Oñati lasterketa irabazteko. Azken aste honetan zaintiratu batekin gelditi egon naiz, eta ez nuen uste horren ondo ibiliko nintzenik".



**IRATXE ARANBURU** | ZARAUTZ LEHENENGO EMAKUMEZKOA

"Nire helburua datorren asteko Donostiako maratoni erdian 1:15:16 egitea da. Proba hori prestatzeko asmoz etorri naiz. Bigarren aldiz hartu dut parte Arrasate-Oñati lasterketan".



**NAIA, SARA, ANE ETA MIREN** | OÑATI BENJAMIN MAILAKO KORRIKALARIK

"Lehenengo aldiz hartu dugu parte Arrasate-Oñati lasterketan. Elkar Hezi ikastetxeko ikasleak gara. Plaza eta udaletxe atzetik zehaztutako zirkuitu bati hiru buelta eman dizkiogu, eta oso gustura ibili gara. Pena izan da eguraldi kaskarra egin duela. Datorren urtean ere etorriko gara".



**EKAITZ ETA ASIER** | OÑATI 2. ETA 3. SAILKATUAK

"Aste batzuk korrika egin barik, geldi egon eta gero, gustura sentitu gara. Arrasatetik Yerairekin batera egin ditugu lehenengo kilometroak, baina egin dituen erritmo aldaketei jarraitzeko modurik ez dugu izan. Fisikoki oso indartsu dago eta, gainera, askoz gazteagoa da. Arazo barik irabazi du".



Itsaso Egaña oñatiarra Donostian bizi da azken urteotan. Psikopedagogia ikasketak egiteaz gain, eskubaloian jokatzen du Akaba Bera Bera taldean. Leonen jokatu

berri den Erregina Kopa Txapelketan bigarren postuan sailkatu da talde donostiarra. Datorren urtean Europan jokatzeke txartela eskuratu dute, beraz.

ITSASO EGAÑA | AKABA BERA BERA ESKUBALOI TALDEKO JOKALARIA

## "Helburua Kopa Txapelketa irabaztea zen, Europarako txartela eskuratzeko"

Arantzazu Ezkibel

**Leonen jokatu berri den Erregina Kopan txapelketa bikaina egin duzue. Nola ikusi duzu taldea?**

Aurten motibazio bereziarekin joan gara txapelketara. Ligan partidu asko galdu ditugu; beraz, Kopan lan ona eginez gero, Europan egoteko aukerak izango genituela bagenekien. Gure helburua, hasieratik, Kopa irabaztea izan da, baina bigarren postuarekin geratu gara.

**Eskubaloian, ze ezberdintasun dago nesken jokoaren eta mutilen jokoaren artean?**

Nesken joko teknikoagoa da. Taktika gehiago erabiltzen dira nesken partiduetan, jokaldiak landuagoak dira. Mutilen jokoa, ordea, indarra gehiago erabiltzen da. Norbanakoak dituen ezaugarri fisikoak gehiago lantzen dira mutilen kasuan.

**Granadan (Transmilla Iznalloz) jokatu zenuen urteaz ze oroitzen dituzu?**

Kirolaren ikuspegitik, oso gustura egon nintzen. Taldean lan asko egiten nuen eta ardura ere handia zen. Han izan nituen minutuak ez ditut hemen.

Baina beste alde batetik, zazpi hilabete soldata jaso gabe egon nintzen, eta hori gogorra egin zitzaidan. Hala ere, oroitzen politak dauzkatz.

**Europako beste herrialde batzuetan nola bizi dute eskubaloia?**

Oso ezberdina da. Alemanian eta Danimarkan, batez ere, eskubaloia beste mundu bat da. Nesken taldeek jende asko erakartzen dute, hemen futbolak beste.

Gu han izan garenetan, 5.000 pertsona izan ditugu guri begira. Jende gehiago eta diru gehiago mugitzen du eskubaloiak herrialde horietan. Profesionalagoak direla esan dezakegu.

**Herrialde askotariko jokalariek ari zarete Akaban. Zer moduzko maila dute jokalariek?**

Holanda, Alemania, Polonia eta Brasilgo neskek ari dira Akaban. Beste guztiak bertakoak gara.

Ertortzen diren jokalariek, normalean, selekzioan jokatzen dutenak izaten dira. Maila ona duten jokalariek dira. Akaban, gainera, oso fitxaketa onak egin izan dira, beti asmatu ohi dute. **Zu txikitatik kirol askotan ibilitakoa zara. Nola bukatu duzu Akaban?**

Hasiera batean, atletismoan eta eskubaloian aritu nintzen,



ARANTZAZU EZKIBEL

Nesken eskubaloian konpromiso handiagoga eskatu nahi du Itsasok.

**"Nesken jokoan teknika gehiago erabiltzen da; jokaldiak landuagoak dira eta, beraz, joko ikusgarriagoa da"**

**"Europako beste herrialde batzuetan eskubaloia beste mundu bat da; profesionalagoa dela esan daiteke"**

**"Etorkizunari begira ari naiz ikasten; kirola eta ikasketak uztartzea ez da samurra izaten"**

baina momentu bat iritsi zen aukeraketa egin behar nuela. Eskubaloiak erraztasun handiagoga eman zidan; ikasketak egiteko aukera, etxea ordaintzen zidaten... Gainera, taldekako kirola egiteko gogoz nengoen. **Zer moduz uztartzen dira ikasketak eta kirol profesionala?**

Egia esan, ez da samurra. Eguneroko entrenamenduz gain irteerak ere badaude. Europan ateratzen garenean klase orduak eta azterketak galtzen ditugu. Lasaitasunez hartzen ari naiz ikasketak, etorkizunari begira. **Eta hemendik urte batzuetara non ikusten duzu zure burua?**

Oraindik jokatzen jarraitzeke gogoz nago, baina baita ikasi dudana horretan lanean hasteko ere. Gorputzak eusten duen bitartean eskubaloian jarraituko dut. **Egin dituzuen bidaia guztiak kontuan hartuz, bitxikeria asko izango dituzue kontatzeko.**

Badaude. Orain, bidaiatzeko trajea jarri digute, eta aireportuetan ea ile-apaintzaileak garen galdetzen digute. Dirudienez kirolariak baino gehiago ile-apaintzaileak ematen dugu.

### Golfa

## Mikel Galdosek ez zuen Burgosko txapelketan kanporaketa gainditu

Larraitz Zeberio

Mikel Galdos golf jokalaria aretxabaletarra penatuta itzuli da asteburu honetan Burgostik. Izan ere, Peugeot Tour txapelketa jokatu zuen, eta ondo ezagutzen zuen Lermako golf zelaia, baina txarto ibili zen txapelketan.

Eguen eta egubakoitzean jokatu ziren lehenengo kanporaketak Burgosen, eta Aretxabaleako golf jokalaria profesionalak ez zuen gainditerik izan.

**HURRENGOARI BEGIRA**

"Txarto ibili naiz Burgosen", adierazi digu Mikel Galdosek. "Irteeretan gaizki ibili naiz hasieratik eta kolpeetan ere ez dut asmatu. Horrelakoak gogorrak izaten dira, baina gainditu egin behar dira".

Hala, Burgosko txapelketa lehenbailehen ahaztu nahi du orain Mikelek eta dagoeneko hurrengo hitzorduan du burua. Lau aste barru Valentziara joatekoa da, han jokatuko den beste txapelketa batera.

### • DEBAGOINEKO TENIS TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

### LEHENENGO FASEKO AZKEN JARDUNALDIA

Asteburuan jokatu ziren tenis txapelketako lehenengo faseko azken partiduak, Oñatin. Eta atzeratuta dauden norgehiagokak asteburu honetan jokatuko dira. Bigarren fasea maiatzaren 20an hasiko da; talde bakoitzeko hiru tenislari onenak sailkatuko dira, eta fase hori ere ligaxka modura jokatuko da. Bigarren faserako sailkatzen ez diren jokalariek, berriz, kontsolazio ligaxka jokatuko dute.

### • GIMNASIA ERRITMIKOA, ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

### IBARREKO GIMNASTEK EMAITZA TXUKUNAK

150 bat gimnasta batu zituen zapatuan Uarkape pilotalekuan egin zen Gipuzkoako A Mailako Eskola Arteko Txapelketak. Debagoieneko gimnastek emaitza txukunak lortu zituzten. Bergararrek, esaterako, lehen postua eskuratu zuten taldekako infantil eta kadete mailetan. Banaka, Lide Toledo eta Sarai Ruiz nabarmendu ziren. Arrasateko Jone Goikolea eta Saioa Arriola ere ondo aritu ziren.



LEHENENGO MAILA

ANTONIO ZABALA | BERGARARRA, REALEKO BAZKIDEA

# "Nihat nahastuta ibili da, baina jokalaria ona izan da"

Xabier Urtzelai

Zine aditu lana egiten duzu GOIENKARIA-n. Hitchcock-en filmekin edo Realarekin sufritu duzu aurre gehiago?

Ez da sufrimendu kontua. Hitchcock-en pelikulek sekulako maila dute, eta futboleko, Realaren jokoak ez.

Laburbildu ezazu Realaren denboraldia film baten izenburuarekin.

Batek baino gehiagok balio luke. Aurtengo denboraldia beharrean azken urteak hartzen baldin badituzte, Bill Murrayk egiten duen *Atrapado en el tiempo* filmak balio luke. Edo hobe esateko, lehen aipatu dugun Hitchcock-ek egin zuen *Con la muerte en los talones* ere aproposa da.

Kontuak kontu, bada garaia partidu bat lasai ikusteko.

Bai, atzo ere azken unera arte sufritzen ibili ginelako. Lehenengo zatian Realak nahiko ondo jokatu zuen, baina aurrean askotan gertatu den moduan, kontrarioak buelta eman zion markagailuari.

Brechet izan zen, txarrerako, partiduko protagonistetako bat.

Ni nengoen lekutik ez nuen penaltirik ikusi, baina egia da jokaldi horretan askoz ere lehenago urrundu behar zuela baloia. Bestela, ez zen gaizki ibili.

Eta, azkeneko ikusi dugu Nihat elastiko txuri-urdinarekin. Zelairatu zenean batzuek txalo eta beste batzuek txistu egin zioten.

Txistu baino jende gehiagok egin zion txalo. Azkeneko urte hau ez du batere ona egin. Lesionatuta ibili da, eta fitxaketen



XABIER URTZELAI

Antoniok uste du Alavesek jarraituko duela Malagaren eta Cadizen bidea.

kontuek ez diote batere onik egin. Kontu horrekin nahastuta ibili dela uste dut, baina erru osoa ez da berea, klubak ere badu eta erantzukizuna. Dena dela, bi denboralditan hogeina gol baino gehiago egin zituen, eta gurea

moduko talde batendako hori asko da; Realarendako oso jokalaria ona izan da.

Dagoeneko Cadiz ere Bigarren Mailako taldea da, zein izango da hirugarrena?

Neure ustez Alaves da Bigarren Mailara jaitsiko den hurrengo taldea.

Realak mesede egin liezaioke datorren astean Espanyol mendean hartuta.

Bai, baina Realak ez du ezer jokoa, eta pasa duten urduritasunarekin, baliteke jokalariai oporretan pentsatzen joatea.

**"Ez nuen penaltirik ikusi, baina egia da lehenago urrundu behar zuela baloia"**

Harmailatik

## Amaitu da sufrimendua



Xabier Urtzelai


**Suspensea.** Realeko zaleendako amaitu da aurtengo film luzea. Zelan? Onak irabaztea gura izaten dugu, baina oraingoan Realak baino txaragoak daudelako amaitu da filma ondo. Zaragozak Alavesi egindako golei esker, datorren asteko azken jardunaldian Realak jarraitzaileek lasai jan ahal izango dituzte palomita, behingoz. Atzoko partiduan azken unera arte egon zen suspensea, baina ez zen izan Realak eta Celtak gol aukerak egin zituztelako, bi taldeek uko egin zioten eta erasotzeari.

**Tragikomedia.** Gauzak diren moduan, Realak lehenengo zati oso txukuna egin zuen. Brechetek hanka sartu zuen arte. Egin duen denboraldia egin eta gero, Labakak ez zuen Anoetako azken partidua aulkitik jarraitzea merezi. Bakerok, baina, lau hilabete gelditu egon den jokalariairekin alde egin zuen, eta ez zuen


asmatu. Tragikomedia itxura hartu zuen partiduak, eta aurrean behin baino gehiagotan gertatu den moduan, guztion buruan zegoen hurrengo generoa: drama.

**Drama.** Eta genero hori areagotu egingo litzateke 2-2ko emaitzarekin Bakerok egin zituen defentsarako aldatetako erantzuna emango ez balute. Realeko entrenatzaileak ondo zekien beste futbol zelaietako emaitzen berri, eta puntua gordetzearen alde egin zuen. Eskerrak ondo atera zitzaion, Anoetako azken minutuek fabore txikia egin zioten eta futbola izenarekin ezagutzen dugun ikuskizunari.

**The end?** Realarendako eta Athleticendako bai, Espanyolen eta Bartzelonaren kontrako partidua lasai jokatu ahal izango dutelako. Ezin gauza bera esan Osasuna eta Alavesendako. Azken jardunaldian ere, horiek asko izango dute jokoa.



**Mikel Arteta**  
Realeko jokalaria ohia urteko jokalaria onena izendatu dute Evertongo zaleek eta baita jokalariek ere. Guztira 4 sari jaso zituen. Ez dudana ulertzen da Realean zertan ibili zen.



**Zinedine Zidane**  
Futbola uztea erabaki delako, gehiago bere jokaldiak ikusiko ez ditugulako: erruletak, bizikletak, boleak... Azken batean, Zidane barik futbola apur bat aspergarriagoa izango delako.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

R.Madril-Vila-real	3-3
Deportivo-Athletic	1-2
Racing-Osasuna	2-1
Getafe-Cadiz	3-1
Reala-Celta	2-2
Zaragoza-Alaves	3-0
Betis-Mallorca	2-1
Malaga-Sevilla	0-2
Bartzelona-Espanyol	2-0
Valentzia-Athletic	1-1

HURRENGOAK

Athletic-Bartzelona
Athletic-Betis
Alaves-Deportivo
Vila-real-Racing
Sevilla-R.Madril
Espanyol-Reala
Osasuna-Valentzia
Mallorca-Zaragoza
Celta-Getafe
Cadiz-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	82	36	25	4	7	77	29
2. R.Madril	70	37	20	7	10	67	36
3. Valentzia	69	37	19	6	12	57	31
4. Osasuna	65	37	20	12	5	47	42
5. Sevilla	62	36	18	10	8	47	34
6. Celta	61	37	19	14	4	44	33
7. Deportivo	55	37	15	12	10	47	44
8. Vila-real	54	37	13	9	15	48	39
9. Getafe	54	37	15	13	9	54	48
10. Atletico	51	37	13	12	12	44	36
11. Zaragoza	46	37	10	11	16	45	48
12. Athletic	42	37	10	15	12	37	45
13. Betis	41	37	10	16	11	33	50
14. Reala	40	37	9	15	13	48	64
15. Mallorca	40	37	9	15	13	34	50
16. Racing	40	37	9	15	13	36	47
17. Espanyol	38	37	9	17	11	35	56
18. Alaves	36	37	8	17	12	34	54
19. Cadiz	33	37	7	18	12	31	52
20. Malaga	24	37	5	23	9	36	63



## Kiniela

KINIELA

1. Betis-Mallorca	1
2. Zaragoza-Alaves	1
3. Deportivo-Athletic	2
4. Bartzelona-Espanyol	1
5. Reala-Celta	X
6. Getafe-Cadiz	1
7. Malaga-Sevilla	2
8. R.Madril-Vila-real	X
9. Racing-Osasuna	1
10. Castellon-Murtzia	1
11. Tenerife-Lorca	2
12. Sporting-Eibar	X
13. Valladolid-Lleida	2
14. Almeria-Albacete	2
15. Valentzia-Athletic	X

Euskal taldeen asteko hamaikakoa





# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Patxiko Txerren ipuin sariketako liburua aurkeztu zuten zapatuan Antzuolan | 22
- Euskal Herriko hegazti sarraskijaleen gaineko erakusketa zabaldu dute Bergaran | 27

Gazteen Eguna eta II. Lore Eguna ospatuko dituzte zapatuan, Eskoriatzan | 27

## II. MAGIA MOSTRA ESPALIOIAN



JOSETXO ARANTZABAL

Herritar asko ere animatu ziren magoen jokoetan parte hartzera. Domekan kalean egin zuten magia Gasteizko lau magok.

**MAGIA** | AURTEN ERE SAIO IKUSGARRIEK OSATU DUTE MOSTRAKO ESKAINTZA

# Magia, trikimailu eta txantxa artean, ilusionismoaren herria izan da Elgeta

*Magia-zale ugari eta beste horrenbeste ikusnahi elkartu ziren asteburuan Elgetan, II. Magia Mostran. Punta-puntako ikuskizunak eskaini zituzten, eta umorea eta magia modu apartekoan batu*

Jon Berezibar

Magiarekiko zaletasuna piztu gura ei dute Elgetako Espaloian. Bigarren aldiz antolatu dute mostra aurten, eta, jasotako erantzun bikaina ikusita, jakin-mina behintzat zabaltzen hasi dela ematen du. Gutxiagorako ere ez zen. Puntako magoak eta ikuskizunak egon dira asteburu osoan Elgetan, saio ikusgarri eta benetan gozagarriekin.

Barikuan, motorrak berotzen hasteko munduko *kartomagia* txapeldunak egin zuen ikuskizuna. Migue magoak, txantxa eta adar-jotze artean, aho-zabalik utzi zituen Espaloiko ikusleak bere atzamarren abileziarekin. Maisu horren saio bikaina baino lehe-

nago, baina, iazko mostrako irabazleari txapela eman zioten. Jandro magoak atseginez jaso zuen txapela eta makina bat txantxarako aitzakia ere izan zen saria, beretzat benetan "bitxia" ei zena. Eta txalo artean agertu zen jarraian Migue magoa eszenara. Umorea labaiingarri moduan, karta eta zapi jokoekin sartu zien ziria ikusleei eta oholtzara igorazitako *boluntarioei*. Barre ugari entzun zen, baina horrek ez zion Migueri meriturik kendu, grazia handiarekin trikimailu ikusgarriak egin zituen-eta.

### ZAPATUAN GORAINO

Gala nagusia zapatukoa izan zen eta esperotako erantzuna izan zuten ikuskizunek. Kafé

antzokia guztiz beteta eta ikusleak ezin parte-hartzaileago, lau magoek zaleak liluratu zituzten. Iazko irabazleak, Jandro magoak, egin zituen aurkez-

**Magoek ederto uztartu zituzten trikimailuak eta umorea saioetan**

**Zaletasuna pizten dabilela ikusi da, zapatuan Espaloia guztiz bete zen-eta**

pen lanak. Lau mago ibili ziren zapatu gauean: Karim, karta eta jokoekin, Francisco Aparicio, ikusleei poltsikoetatik edozer ateratzen iaioa, Jorge Blass soka jokoekin eta Arno frantziarrak txoriekin egin zuen ikuskizuna. Denetan azken horrena ikusgarriena izan bazen ere, algara handienak Francisco Aparicioek eragin zituen, ikusleei erloju, diruzorro eta gorbatak kentzeraino.

Domeka eguerdian magia herriko kaleetara atera eta Arabako Ilusionismo Elkartekoak ibili ziren saioak kalean egiten. Arratsaldean, berriz, Philippe Atchoum ibili zen puxikekin figurak egiten. Domekakoa familiarri zuzendutako eguna izan zen, haurren ikuskizunekin.



## II. MAGIA MOSTRA ESPALOIAN

### • KARTAK, KAPERAK, TRIKIMAILUAK ETA, BATEZ ERE, TXANTXAK



**MIGUE MAGOAREN TXANTXAK.** Barikuan irekitze-saio ezin umoretsuagoa izan zuen mostrak. Zirria bikain sartu zien Miguek, txantxa eta trikimailu artean, eszenatokira igorazi zituen lagunei. Irudiko Elgetako emakumeari erlojua eskatu, poltsa baten txikitu eta erdi erotu eta gero, kaxa baten barruan zegoen babarrun lata batean itzuli zion erlojua, andreak berak esandako ordua markatzen zuela. Horra, haren harridura aurpegia.



**JANDRO MAGOA BERE SALTSAN.** Iaz berak irabazi zuen mostrako ikusleen saria eta harro-harro jantzi zuen txapela aurkezpen lanetan zebilela. Aurten Migue Magoa izan da publikoaren faboritua (612 boto). Asteburu osoan bozkatu dute ikusleek magorik onena eta boto-emaielen artean zozkatutako Gasteizko Magia jaialdirako bi sarrerak irabazi ditu Jose Mari Unzeta elgetarrak. Baita hango magoekin afaltzeko aukera ere.



**DIRU-ZORROEKIN KONTUZ.** Francisco Apariciok lau lagun atera zituen oholtzara. Pick-pocket delako magia egiten du hark. "Biktimak" ondo zorabiatu eta gero, diru-zorroa, gorbata, zapiak eta gerrikoa bera kentzeko gauza da Francisco Aparicio. Lapur abila izateaz gain, umore handiko *show-man*-a ere bada magoa, eta algara ederrak eragin zituen txantxa eta txantxa artean. Magia eta umorea eskutik joan ziren.



**KALEAN ETA TABERNETAN ERE MAGIA.** Domekan magia kalera atera eta Arabako Ilusionismo Elkartekoak ibili ziren herritarrak zur eta lur uzten. Hainbat mago tabernaz taberna ibili ziren karta jokoak egiten eta jendearen parte-hartzea bilatzen. Harrituta eta trikimailuak asmatzeko esperantzarekin geratu ziren asko, baina gertutik ere zaila izan zen tranpa non zegoen asmatzea.

### • DOMEKA HAURREI ZUZENDUTAKO EGUNA IZAN ZEN



AITZIBER ETA LOREA | ELGETA

Puxikaz egindako lore koloretsu banarekin harrapatu genituen bi neskato hauek. "Guk ez dugu putzik egin, magoak egin dizkigu puxikak", diote; eta horregatik ez zioten begirik gaintetik kendu magoa figurak egiten zebilenean. Domekako saioak haurrendako bereziak izan ziren, eta puxikekin egindako figuragileez gain, magoak eta trikitilariak izan zituzten kaleak eguna girotzen. Haurrak ere ahozabalik geratu ziren magoen trikimailuak ikusita.



CYNTHIA | ELGETA


"Puzteko zailak dira puxika hauek, eta magoari eskatu diogu figurak egiteko". Cynthia ere lore ederra zeraman eskuan, eta artistak txapela eta gerrikoa noiz bukatuko zituen zain zegoen, haiek ere jantzeko.

### HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- IMMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA  
**MUGI, Psikomotrizitate  
Prebentzio eta  
Laguntza Zentroa**  
TOKIA  
Araba etorbidea 3,  
2-3. atea, Arrasate  
EGUNAK  
Maiatzak 17, 24, 31 eta  
ekainak 7 eta 14.  
ORDUA  
10:30etik 12:30era  
INFORMAZIOA  
**MUGI ZENTROAN**  
943 77 08 05







ROCKA | NO USE FOR A NAME, VERSUS THE WORLD, THE LAWRENCE ARMS

## Aurreko bisitan baino zahartuago baina, halere, indartsuago jo zuten NUFANekoek

*Kontzertu indartsua izan zen zapatuan Bergarako Jamen, NUFAN veteranoen eskutik*

Asier Hernandez

Versus the World taldeak eman zion hasiera jaialdiari, eta ez zuten batere gaizki egin; ezta ondoren jo zutenek ere, The Lawrence Arms bandak. Aurretik beste behin ere Bergaran izandakoak dira eta giro polita sortu zuten azken taldeari errelebu emateko.

Azkena izan zen No Use For A Name talde veterano eta punk-rockeroa. Rory Koffek (bateria-jotzaileak) berotu bitartean, *Alza la mano si te gusta el chocolate* abestiarekin dantzan iku-

si genuen Dave (gitarra-jotzailea). Ondoren ikusiko genuenaren aurrekari xelebrea, dudarik gabe! Emanaldia indartsu hasi zen hiruzpalau kantu esanguratsurekin: *Not your saviour* eta *Invincible* horien artean. Abesti lasaien artean, abiadu-

ra eta melodia handiko kantuak entzun ahal izan genituen: *On the outside*, *Justified black eye*, eta abar.

Momentu lasaiak ere egon ziren eta su-pizgailuren bat ere ikusi genuen. Hala ere, kontzertuak indarra berreskuratu zuen *Soulmate* eta *Exit* abesti mitikoekin. Bukatzeko, bisean, The Pogues taldearen *Fairytale of New York* (baxu-jotzaileak, barruko arropa estuegiarengatik-edo, emakume ahotsa edeki simulatu zuten) eta Bob Marleyren *Redemption song* abestien moldaketak entzuteko parada izan genuen. Eta azkenik, betiko zaleak gustura utziz, *Feeding the fire* jo zuten! Taldea azkeneko aldiz baino zahartuago eta, hala ere, indartsuago antzeman genuen, eta datorren urtean beste aukera bat izango dugu, berriro itzuliko direla esan zuten-eta.

Betiko zaleen neurri egindako saioa izan zen, abesti mitikoekin

Gogor ibili ziren, baina momentu lasaietan ere ondo moldatu ziren abesti melodikoekin

## Rumba eta perkusio biziakin gutxi eutsi ahal izan zioten gerriari zapatu gauean

*Kataluniako erritmorik urbano eta mestizoenak ekarri zituzten zapatu gauean Gertrudis taldekoek Arrasateko 3.60 aretora*

Asteleheneko Goienkaria

Rumba sasoi ezin hobean dago, eta zapatuan Gertrudis taldekoek Arrasateko 3.60 aretoan egindako kontzertuan, Kataluniako musika urbano eta jaizale horren osasun bikaina erakutsi besterik ez zuten egin. Mestizaia ikur hartuta eta tartean erritmo afrikarretatik hasi gitarra flamenkoetatik edanda, gerria geldiezin uzteko moduko kontzertua izan zen. Fusioa eta halako berbak ahoz aho ibili arren, nabari zen Gertrudis taldekoek badakitela iturri askotik edaten, eta izaera bereziko rumba egiten dute, era berean. Musikariek ere maila itzela erakutsi zuten, instrumentu bati baino gehiagori egurrareman. Rumbaren azken


urteotako berpizkundearen erantzuleetakoak da Gertrudis, Ojos de Brujo, La Kinky Beat eta halako taldeekin batera. Joerak joera, argi dagoena da musikari apartekoek osatzen dituztela taldeok, eta Gertrudis taldekoak ere ez dira salbuespena.

**PERKUSIO IKARAGARRIAK**

Kaxa flamenkoak, perkusio afrikarra, bateria... Erritmo bizi eta kutsakorrez jantzen dituzte kataluniarrok euron abestiak. Aretoa ondo beteta, gutxi eutsi zioten gorputza astintzeko nahiari eta dantza giroa izan zen nagusi. Zer esanik ez, taldeak bere onena eman zuen, eta, ikusleek bezala, izerdi patsetan amaitu zuten. Bada, gustura baino gusturago ibili ziren seinale.



Kataluniatik zuzenean rumba ekarri zuten Arrasatera Gertrudis taldekoek.



LITERATURA | PATXIKO TXERREN TXIKI IPUIN SARIKETA ANTZUOLAN

Zapatuan eman zituen ezagutzera Udal Liburutegiak Patxiko Txerren Txiki sariketan aukeratutako ipuinen zerrenda. Sariketaren bederatzigarren aldia izan da eta lehenengo mailatik hasi eta seigarrenera arteko 88 ikaslek hartu dute parte. Hala, maila bakoitzeko lan bat aukeratu dute eta liburua osatu dute. Liburua ere zapatuko ekitaldian aurkeztu zuten. Aukeratutako lanen egileak dira, lehen mailatik seigarrenera: Mairi Olabarria, Jon Mata, Nerea Irastortza, Josu Aiastui, Mikel Mata eta Alaitz Urkiola | M.B.



MUSIKA | UDAL MUSIKA BANDAREN EMANALDIA BERGARAN

Atzo, domeka, hileroko emanaldia egin zuen Bergarako Udal musika Bandak Bergarako Udal pilotalekuan. Jarraitzaile fidelak ditu Bergarako bandak eta atzo ere jende ugari batu zen emanaldia ikusteko. Bandaren zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Entre Azahares* pasodoblea egin zuten, Juan Crisostomo Arriagaren *Nada y Mucho*, Pablo Lunaren *El Asombro de Damasco* eta, bukatzeko, *Tintin* musikalaren zatia. Aurretik kalejira egin zuten. | A.G.



# Saab Espazio Berria ezagutu ezazu *Giauto*



**Hangarra txiki  
gelditzen zitzaigun.**

[www.giauto.redsaab.com](http://www.giauto.redsaab.com)



**ETOR ZAITEZ BERGARAKO  
SAAB SHOWROOM BERRIA IKUSTERA**

***Giauto***

Olabarrena Auzoa, z/g  
Bergara. Gipuzkoa. Tel. 943 763 344



II. TRIKITIXA EGUNA | ARETXABALETA



Hamarretakoa egin eta gero, trikitilari gazteak Aretxabaletako kaleetan ibili ziren kalejiran, eguerdira arte.

UBANE MADERA

# Trikitiaren "loraldiko kimuak" Aretxabaletan ikusi genituen

*350 neska-mutiko inguruk parte hartu zuen II. Trikitixa Egunean; lekukoa Bergarari pasa diote orain*

Ubane Madera

Hauspoei eraginez, pandero-jotzailen erritmoek lagunduta, doinu alai, bizi eta arinak barreiatu zituzten zapatuan Aretxabaletan 350 trikitilari. Ibarretik eta beste zenbait herritatik etorritako trikiti-eskoletako ikasleek ipini zuten jaia, iaz Arrasaten egin zuten moduan. Leizarra Musika Eskolak antolatuta, goizean hasi eta gaueko ordu txikiak arte iraun zuen *triki-maratoiak*. Helburua zen "eskolen proiektuen eta elkarren berri izatea; eta umeez egun zoragarria pasatzea, herria alai-

tzea eta, oro har, euskal kulturaz herria bustitzea"; hala adierazi digu II. Trikitixa Egunaren antolaketan jardun duen Inaxio Garrok. Haren esanetan, helburua betetzea lortu zuten zapatukoan: "Oso balorazio ona egiten dugu. Gazteak oso pozik dabilta, ilusionatuta, eta kaleko animazioa ere oso ona da, jendea gogotsu etorri da ikustera eta entzutera". Gainera, eguraldiak azkenerraino eutsi zion eta Kepa Junkeraren kontzertu "mundialarekin" bukatu zuten. Oro har, antolatzailak eta jaiaren parte hartu zutenak oso pozik geratu ziren emaitzarekin.

Bestalde, Inaxio Garrok gaineratu zigun asmoa dela Trikitixa Eguna iraunaraztea eta helburu horrekin lekukoa beste herri bati pasatzea. Hala, lekukoa Bergarari emango diotela jakinarazi zigun.

**LEKUA HARTU BEHAR**

Trikitia indartsu dagoela ikusi genuen Aretxabaletan. Inaxio Garrok ere hala uste du: "10-15 urtean hainbat trikiti eskola sortu dira ibarreko herri guztietan eta gaur egun ia 400 ume dabilta ikasten. Loraldia izan du trikitiak. Kimuak kalean dira gaur".

Hori bai, Leizarrako arduran Ines Osinagak zera esan digu: "Gaurkoaren modukoak ondo daude, sagardoa eta txistorra janez trikitia jotzea. Baina ea sagardo eta txistorra barik trikitiak lekua topatzen duen; euskal giroan badu lekua, bestela aurkitu behar du".

• TRIKITILARI GAZTEAK IKASTEN DABILTZA



ALAITZ | ANTZUOLA

**"Nire ustez, trikitia polita da eta indar apur bat badaukala pentsatzen dut"**

"Antzuolakoa naiz, baina Zumarragako musika eskolan nabil ikasten, orain dela lau urte. Nire ustez, trikitia polita da eta indar apur bat badaukala pentsatzen dut. Niri gehien gustatzen zaidan trikitilaria da Edurne Iturbe; trikitia ondo jotzen duelako gustatzen zait".



BEÑAT | ARETXABALETA

**"Taldean lau mutil bakarrik gara, besteak neskak dira, baina ez dakit zergatik"**

"Iaz hasi nintzen trikitia ikasten. Taldean lau mutil bakarrik gara, beste guztiak neskak dira, ez dakit zergatik. Etxean entzuten nuen trikitia, eta gura nuelako hasi nintzen ikasten. Gustatu egiten zait eta jarraitzeko asmoa daukat; gehien gustatzen zaidana da Kepa Junkera".



SORALUZKO MUSIKA ESKOLA | SORALUZE

**"Trikitixa Egunean parte hartzen dugun lehen aldia da eta zaletasuna indartsu dagoela ikusten da"**

"12 lagun etorri gara Soralezetik, irakasle eta ikasleak. Gustura etorri gara, gonbidatu egin gaituzte-eta; Trikitixa Egunean parte hartzen dugun lehen aldia da eta zaletasuna indartsu dagoela ikusten da. Jendeari gustatu egiten zaio trikitia eta kalean giro polita sortzen du. Soraluzen, adibidez, 12 urte pasatxo daramatzagu musika eskolan trikitia erakusten eta gaur egun 19 ikasle ditugu. Hori bai, 19 ikasleetatik bi bakarrik dira mutilak".

• EUSKAL GIRO BETE-BETEA IZAN ZEN ARETXABALETAN



**PRODUKTU BEREZIAK.** Saltokian ipini zituzten, besteak beste, pandero berezi batzuk salgai, oktagonalak, Kike Rodriguez Martinez de Marañon gasteiztarrak egindakoak. Eta bestelakoen artean, zozkatu zuten pandero-erloju bat eta asteburuko egonaldia. Zenbaki irabazlea da: 6.880.



**JAIALDIA.** Kalejiren ostean, Durana kalean elkartu ziren trikitilariak eta taula gainean kalejirak, fandangoak eta beste jo zituzten. Debagoienekoez gain, bestelako zenbait herritako taldeak ere gonbidatu zituzten: Ataun, Iruñea, Viana, Zumarraga eta Urretxu, besteak beste.



**BAZKARIA.** Herriko plazako arkupean bueltan ondo merezitako bazkaria eman zieten II. Trikitixa Egunean parte hartu zuten neska-mutikoei. Fresko samar egon arren, ondo asko jakin zuten eurena eta gainerakoen giroa berotzen trikitilari gazteek.



maiatzaren

11tik aurrera

**berria berria  $\approx$  berria<sup>2</sup>**

**KAZETA EREDU BERRIA**

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

**GUREAN ULERTUKO DUZU**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



Beti da gustagarria Joseba Tapiaren emanaldiak entzutea. Eguenean Aretxabaletako Kurtzebarri Institutuan izan zen, Debagoienerako II. Trikitixa Eguneko

antolatzaileek gonbidatuta. Garrantzitsua deritzo halako hitzorduak antolatzeari, eta trikitiak osasun ona daukala uste du. Udan dantzaldi asko ematen dituztela ziurtatu

digu, baita jendea trikitiarekin dibertitu egiten dela ere. Tapiak ez du atsedetik hartzen eta irailerako prest du *Real Politik*, bakarka kaleratuko duen laugarren diskoa.

## JOSEBA TAPIA | TRIKITILARIA

# "Geroz eta zailagoa da merkatuan egotea, baina trikitiak hor jarraitzen du"

Larraitz Zeberio

**Debagoienerako II. Trikitixa Eguna ospatu duzue asteburuan. Zer iruditzen zaizkizu horrelakoak?**

Hauxe da gure ofizioa eta horrelakoak behar izaten ditugu gure emanaldiak egiteko. Beraz, ederki iruditzen zait.

**Eta publikoari begira, garrantzitsuak dira horrelakoak trikitiarekiko zaletasuna mantentzeko?**

Trikitixa mantentzeko eta baita gure lanak ezagutarazteko ere. Ni, esaterako, disko berria prestatzen ari naiz eta Debagoienerako Trikitixa Eguna bikain etorri zait jendauraren lehenengo saiotoxoak egiteko.

**Debagoienerako trikitiak tradizio handia du. Maiatzaren 20an egingo da *Elgeta*-ren omenezko ekitaldia Espaloia Kafe Antzokian. Egotea zara, ezta?**

Horrela da. Laja eta Landakanda eta Epelarra eta Zabalekin batera.

**Ez zenuen *Elgeta*-rekin harreman zuzenik eduki, baina gertuko egiten zaizu, ezta?**

Ni jaiotako urtean hil zen hura, baina bi osabaren irakaslea izan zen eta eurek kontatutako gauzak dakizkit. Gizon oso zorrotza zela entzun izan dut beti. Asko zaintzen omen zituen bere jantziak eta soinua, zer esanik ez! Zapia jar-

tzen omen zuen arropa eta trikitiaren artean, ez hondatzeko.

Gero, irakasten ere oso zorrotzen zen. Haren ikasleei entzun besterik ez dago. Denak oso antzerako moduan jotzen dute. Hortik atera daiteken ondorioa da oso zorrotza zela erakusteko garaian. Batzuetan gertatzen zen harekin ikasten hasi aurretik ikasleak besteren batekin ikasitakoak izatea. Lajak kontatzen du horrelakoetan berrikotik hasiarazten zituela eskolak, "bizio txarrak hartuak dituzu", esanez.

**Trikitixa gehiago entzuten genuen duela urte batzuetako erromerietan. Zergatik egin dute behera erromeria horiek?**

Euskaldunon egoeraren parean ikusten dut egoera. Mundu kapitalista eta globalizatu honetan barnera goazen bezala, dena geroz eta zailagoa da. Bai euskal kultura mantentzea bai kontsumitzea ere... Trikitixak berak ere komertzioan ibili beharra dauka eta zailtasun handiak ditu alde horretatik.

Bestalde, esan beharra dago trikitilari asko dabilela. Erromeria asko egiten da oraindik ere. Ez nuke esango lehen baino gutxiago egiten direnik.

Hala ere, horrelako analisiak egin baino gehiago jarraitzen ditut soinu-jotzaileek zer produzitzen duten, nola dabilzan, eta alde horretatik ikusten dut mugimendu handia dagoela.

**Produktzio handia dago?**

Bai. Orainxe atera dute diskoa Epelde eta Larrañagak, Iker Goenagak, nik irailan atera behar dut, Kepa Junkerak ateratzekoa du udazkenean ere... Nik uste dut produktzio aldetik ez gabiltzala batera gaizki.

**Erromeriak bultzatzeko ekimena bultzatu dute Bergaran. Erromeriak berreskuratzeko modurik ikusten duzu?**

Oso interesgarria iruditzen zait, baina askotan antzinako erromeriak izaten ditugu horrelakoetan buruan eta ez dut uste helbu-



Joseba Tapiak irailan kaleratuko du *Real Politik*, bere bakarkako laugarren lana.

ru hori bultzatu behar dugunik beti. Gaur egungo erromeriak egin behar dira. Uste dut dantzaldiak egitea posiblea dela. Guk horretan ematen dugu uda osoa eta ikusten dugu jendea dibertitu egiten dela. Alde horretatik uste dut erromeriak bizirik dirauela. Oraingo dantza moduekin bada ere, jendea biltzen da horrelakoetan eta ez dut uste oraingo, behintzat, erromeriak galduko direnik. Ikusiko dugu aurrerantzean, belaunaldi berriekin, zer gertatzen den.

**Irailan kaleratuko duzue zure bakarkako laugarren diskoa. Zer da *Real Politik*?**

Kantu baten izenburua da berez eta diskoaren izenburua ere bai. Nire gainerako bakarkako diskoen modura, honakoan ere ez da trikitiaren birtuosismoa azaleratzen. Hemen kantua proposatzen dut, batzuetan trikitiarekin eta besteetan gabe.

Idazle hauek erabilitako euskara, erritmoak, landutako gaiak... gustatu zaizkit. Maite-

minduta gelditu naiz letra hauekin eta kantatzea erabaki dut.

**Erabaki duzue diskoa zein diskoetxerekin kaleratuko duzue?**

Ez. Hortxe nabil. Irailan atera behar dut eta horri bueltak ematen nabil oraindik ere. Oraindik, behintzat, ez nago albistea emateko moduan. Neronek ere laster jakingo dut.

***Real Politik* karga kritiko handiko diskoa omen da. Zeri egiten diozu kritika?**

Jakina da nola dagoen gure mundu hau eta badago zer kritikatu. Testuak, gainera, asko daude. Esango nuke euskal literaturan badagoela non aukeratu. Nik, behintzat, disko asko ateratzeko adina letra ikusi dut.

**Hasia zara pieza hauek jendauraren jotzen.**

Pentsatu nuen diskoa atera aurretik jendartean probatu egin behar nituela kantuok. Normalean diskoa atera eta gero egiten ditugu kantaldiak eta orduan sortzen zaizkigu dudak. "Hau beste modu batera egin izan banu..." Uda dator eta irailera arte ez naiz berriz diskoarekin hasiko; beraz, emanaldira batzuk egin ditut. Gutxi, dena den.

"Trikitilari asko dabilela uste dut; erromeria asko egiten dira oraindik ere"

"Maiatzaren 20an Espaloian Kafe Antzokian izango gara *Elgetari* omenaldia egiteko"

"Produktzio aldetik ere ondo gabiltzala ikusten dut; mugimendu handia dagoela uste dut"

"*Elgeta* irakasle oso zorrotza zen; haren ikasleek oso antzera jotzen dute, entzun besterik ez dago"

**UGARTE**  
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean  
Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



## Gazteen Eguna eta II. Lore Eguna ospatuko dituzte zapatuan Eskoriatzan

*Herriko lau musika taldek 'Lokaletako hotsak' diskoa grabatu dute, eta berau aurkeztuko dute kontzertuan*

Leire Kortabarria

Gazteen Eguna antolatu dute zapatuak, hilak 13, Eskoriatzan. Oso egun berezia izango da: izan ere, ekitaldi nagusietako bat izango da herriko musika taldeek grabatu duten CDaren aurkezpena.

Hain zuzen, Klineks, Arianrod eta Lukas Prest musika taldeek grabatu dute disko hori, *Lokaletako hotsak* izenburua duena, eta Herriko plazan aurkeztuko dute kontzertuan, 22:00etan.

Horrez gain, gazteendako beste ekintza asko egongo dira zapatuan: besteak beste, gazte bazkaria, eta horretarako txartelak Inkernu eta Aldatz taber-

netan dituzte salgai, 15 euroren truke.

### BESTE AISIALDI AUKERAK

Eskoriatzako Udal Gazteria Zerbitzuak eta herriko taldeek batera antolatu dute egun hori. Hala ere, herritar guztiendako moduko beste eskaintza batzuk baditu Eskoriatzako Udalak.

Hala, perkusio eta dantza afrikarren ikastaro trinkoa antolatu dute maiatzaren 27rako eta 28rako, zapatua eta domeka. Egundako matrikula 40 euro da, eta egun bakarrekoa, 25ekoa. Izenematea zabalik dago hilaren 19ra arte kultura etxean.

Gaztetxoago direnendako, Gazte Lekuak hankapalu ikastaroa antolatu du domekarako, hilak 14; hurrengo asteetan, eskal dantzen ikastaroa emango dute. Umeek, berriz, gurasoekin jolas egiteko aukera izango dute ludotekan, kanpoko jolasak ezagutuko dituzte eta zapatuan.

Azkenik, herriko dendariek antolatuta, II. Lore Eguna ospatuko dute zapatuan. Dendariek loreak banatuko dituzte Herriko plazan.

## Labur

### Sexty Sexers talde beratarrak diskoa aurkeztuko du Arrasaten

Sexty Sexers taldeak *Iluntze berri baten bila* delako diskoa aurkeztuko du kontzertuan. Arrasaten izango da, Eskola Politeknikoan, 21:00etan. Talde gehiagok ere joko dute gau horretan.

Beran sortu zen Sexty Sexers taldea 2001. urtean, eta Ameba izena izango zuen gerora. Lehenengo, bertsioak egiten zituzten, eta gero kantuak sortzen hasi ziren. 2005. urtean ipini zioten taldeari Sexty Sexers izena. Ondoren, boskoteak jotzeko aukera guztiak aprobetxatu ditu. Punk-rocka eta rock izerditsua egiten dituzte.

### Hiru emanaldi, horietako bat doan, Oñatiko Musikegunak programan

Oñatiko Musikegunak programako lehen emanaldia atzo, domeka, egitekoak ziren Santa Ana antzokian. Hurrengo bi saioak hauek izango dira: Ensemble Diatessaron (hilak 14) eta Capilla Peñaflovida (hilak 21), biak ere Santa Ana antzokian 19:30ean.

Horiatarako sarrera ordaindu egin behar da, baina azken emanaldia berezia eta doan izango da, Mundumira jaialdiaren barnean dagoelako: maiatzaren 27koa da, Peio Ramirezena. Santa Ana antzokian izango da, 22:30ean.

### Iñaki Ibartzabal bergararrak lehen margolan erakusketa zabaldu du

Iñaki Ibartzabal bergararrak bere lehen margo erakusketa aurkeztu du. Bergarako Nahikari tabernan ditu hamasei margolan. Masterreka kalean dago taberna hori. Erakusketa hil osoan egongo da zabalik.

Ibartzabal orain dela gutxi hasi zen margotzen, Rikardo Azkargortak irakatsita. Denetariko estiloak eta eskolak ditu gustuko, baina batez ere inpresionismoa, espresionismoa eta espresionismo abstraktua.

## Hitzorduek



### EUSKAL HERRIKO HEGAZTI SARRASKIJALEEN GAINEKO ERAKUSKETA |

Sai arreen, sai zuriaren eta ugatzaren argazkiak daude erakusketa horretan, Bergaran

Hegazti sarraskijaleak argazki erakusketa ikusteko aukera dago zapatuaz geroztik Bergarako kultura etxean. Oñatiko Natur Eskolak antolatu du eta bi argazkilariren lanak batzen ditu: Juanjo Nogueiras bergararrarenak eta Javier Ara Sabiñanigoko argazkilarienak.

Euskal Herriko hiru espezieen argazkiak dira: sai arrea, sai zuria eta ugatza (irudian). Azken hori Nafarroan dago gurean baino gehiago, eta galtzeko arriskuan dagoen hegazti mota bat da. Bere berezitasuna da hezurak jaten dituen sarraskijale bakarrena dela. Sai arrea da geurean arruntena.

### ZINEMA |

• *El caso Slevin* filma ikusteko aukera dago Oñatiko Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

• *Martín Hache* filma emango dute Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• *Caché (Escondido)* filma emango dute Arrasaten Egueneko zineklub saioan emango dute film hori. Amaia antzokian izango da, 20:30ean. Michael Haneke-k iaz zuzendutako thrillerra da.

### LEHIAKETAK |

• **San Juanetarako kartel lehiaketa Arrasaten** Udalak deitutako lehiaketa. 2006 San Juan Jaiak Arrasate testua eraman beharko dute lanek. Egileak kontuan izan behar du aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dela. Jai egitarauaren neurria 28 x 21 cm-koa izango da. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 19ra arte dago zabalik.

• **22. Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu dute** Zuri-beltzeko eta koloretako kategoriak ipini dituzte. Gehieze ere, lau argazki aurkez ditzake norberak, 30 x 40 zen-

timetroko kartulinatan. Lanak kultura etxean entregatu behar dira. Mugaeguna maiatzaren 23a da.

• **Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa deitu dute** Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa antolatu du Alzu dendak, Suministros Eviarekin batera. Lanak dendan utzi behar dira, edo [iarrese@hotmail.com](mailto:iarrese@hotmail.com) helbidera bidali. Saria da arrantza materiala.

• **Gomendatzen dizut... lehiaketan parte har daiteke** Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek Gomendatzen dizut... lehiaketa deitu dute. Oporren gainera gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik behararakoendako, 300 euroko irteera bat. Argibide gehiago: [www.aizue.com](http://www.aizue.com). Mugaeguna, irailak 28.

### IKASTAROAK |

• **Argazki ikastaroan izena emateko aukera dago** Bergarako Pol-Pol Argazki Taldearen eskutik, argazkigintza analogiko eta digital ikastaroa emango dute maiatzaren 8tik 31ra. Izena emateko epea maiatzaren 4ra arte zabalik. Argibideak, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

### MUSIKA |

• **The Nitwitz eta Señor No taldeen kontzertua** The Nitwitz (Herbehereak) eta Señor No taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren 14an, domeka, Txapa Irrati Libreak antolatuta. Bergarako gazte-txean izango da, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK |

• **Sahararen borrokaren gainera argazki erakusketa** *Saharak 30 urte baino gehiago justizia aldarrikatzen* delako argazki erakusketa bisita daiteke Elgetako Espaloia antzokian hilaren 14ra arte. Mundumira jaialdiak antolatzen du.

• **Munduko 150 musika tresna dago erakusketan**

*Ikusteko musika* delako erakusketa dago Bergarako Aroztegi aretoan. Mundu osoko 75 kulturaren 150 musika tresna batzen ditu, baita horiek egin dako musika ere. Artegune elkarteak antolatzen du erakusketa. Maiatzaren 28ra arte dago zabalik.

### BESTELAKOAK |

• **Idazleak irakurle gomendio gida dago Arrasaten** *Idazleak irakurle gomendio gida* prestatu du Arrasateko Udal Liburutegiak, eta hantxe dago eskuratzeko. Hamar euskal idazleak irakurketa gomendioak egiten dituzte hor.



**Eguraldia**



**Hodeitsu izango dugu zerua eta tenperaturak gora egingo du**

Goizaldean zerua hodeitsu esnatuko da gaur, eta han-hemenka zaparrada arinak bota ditzake. Gainontzeko orduetan zerua hodei-guneekin egongo da. Bihar goizean lanbroa eta lainoa agertuko dira. Zerua hodei-guneekin egongo da, erdi mai-lako hodei eta goi-hodeiekin. Eguerditik aurrera hodeiak

ugaritu egingo dira eta gauean euri arina egingo du. Eguazten eta eguenean ere antzera ibiliko gara: zerua hodeitsu egongo da goiz partean eta garbi-guneeak areagotu egingo dira arratsalderako. Tenperaturak apur bat gora egingo du. Egubakoitza epelagoa izango da eta zerua lainotsu egongo da.

**Guardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 8</b>	Irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
<b>Martitzena, 9</b>	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
<b>Eguaztena, 10</b>	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 77 18 65)
<b>Eguena, 11</b>	Ruiz Perez	Maalako arrabala, 31 (943 79 14 09)
<b>Egubakoitza, 12</b>	Zabala	Zarugalde, 32 (943 76 16 30)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 8</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
<b>Martitzena, 9</b>	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
<b>Eguaztena, 10</b>	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
<b>Eguena, 11</b>	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 16 87)
<b>Egubakoitza, 12</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)

**ONATI**

<b>Astelehena, 8</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
<b>Martitzena, 9</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
<b>Eguaztena, 10</b>	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
<b>Eguena, 11</b>	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
<b>Egubakoitza, 12</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 8</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Martitzena, 9</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguaztena, 10</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguena, 11</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Egubakoitza, 12</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

**112**  
SOS DEIAK

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 1  
13 · 19 · 25 · 37 · 46 · 49  
Osagarria: 48 | Itzulketak: 5

Martitzena, 2  
5 · 8 · 27 · 34 · 40 · 42  
Osagarria: 47 | Itzulketak: 6

Eguaztena, 3  
23 · 25 · 26 · 31 · 45 · 46  
Osagarria: 41 | Itzulketak: 6

Egubakoitza, 5  
15 · 16 · 28 · 30 · 31 · 45  
Osagarria: 36 | Itzulketak: 8

**ONCE**

Astelehena, 1 **Jai eguna**

Martitzena, 2 **52.650**

Eguaztena, 3 **40.655**

Eguena, 4 **40.197**

Egubakoitza, 5 **08.287**

Kupoitzarra (046 seriea)

Domeka 7 **11.109**

Kupoitzarra (040 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 4  
1 · 7 · 20 · 21 · 32 · 38

Osagarria: 15 | Itzulketak: 0

Zapatua, 6  
5 · 7 · 20 · 21 · 32 · 38

Osagarria: 15 | Itzulketak: 0

Zapatua, 6 (Saritzarra)  
5 · 29 · 35 · 51 · 54

Itzulketak: 4

**Gazte zerbitzuak**

**BEKAK I**

• **Ikerketa.** Eusko Jaurlaritza. EAEko gaztediaren gaineko ikerketa proiektuetarako beka. Epea: ekainak 2.

• **Gradu-ondoko ikasketak.** Rafael del Pino Fundazioa. Espainian eta atzerrian gradu-ondoko ikasketak egiteko beka. Epea: maiatzak 19.

**EKINTZAK I**

• **Boluntarioendako nazioarteko auzolandegeak.** SCI. Lan boluntarioa: Europa, AEB, Korea, Australia... zehar. <http://www.nodo50.org/siv/ca/mpos.html>.

Epea: plazak bete arte.

**IKASTAROKAK I**

• **Laneko segurtasuneko goi mailako teknikaria.** Langabeentzat. Fondo Formacion Euskadi.

Epea: ekainak 29 (plaza mugatuak dira).

• **Uned.** Bergara. Udako ikastaroak antolatu ditu. <http://www.uned.es/cabergara/udaikastaroak/uda06/portada.htm>.

**LEHIAKETAK I**

• **Argazkia.** Bergarako Hiria. Bergara Hiria: XXII. Argazkiak, zuri-beltzean edota koloretan aurkez daitezke. Gainera, edozein teknika edo prozedura onartzen da. Epea: maiatzak 23.

• **Kartel lehiaketa.** Errenteriako Udala. XXII. MADALENAK 2006. Teknikak: marrazkia, pintura, argazkigintza, collage edo antzeko beste batzuk. Epea: ekainak 2.

• **Literatura.** Kutxa Fundazioa. Kutxa Donostia Hiria. Ipuina eta antzerkia. Epea: urriak 16.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Kultura etxea. 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

**ONATIKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Foruen plaza 4. 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net



**Telefono jakingarriak**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

OSAKIDETZA (Larrial.) 943 46 11 11

DYA (Orokorra) 943 46 46 22

DYA (Antzuola) 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 22 22 22

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Bergara 943 53 47 20

Osasun Etxeak

Arrasateko Osp. 943 03 53 00

Antzuola 943 76 62 23

Aramaio 945 44 53 40

Aretxabaleta 943 71 19 59

Bergara 943 03 54 00

Elgeta 943 03 54 00

Eskoriatza 943 71 44 52

Leintz Gatzaga 943 71 47 46

Oñati 943 03 54 30

Hies Ekimena 943 79 26 99

Udaltzaingoa

Antzuola 943 76 62 46

Aramaio 945 44 50 16

Arrasate 943 79 14 39

Aretxabaleta 943 71 18 63

Bergara 943 77 91 06

Eskoriatza 943 71 44 07

Leintz Gatzaga 943 71 47 46

Oñati 943 78 04 11

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak 902 54 32 10

PESA 902 10 12 10

Taxiak

Antzuola 943 76 61 81

Arrasate 943 79 12 22

Aramaio 945 44 50 33

Aretxabaleta 943 77 12 64

Bergara 943 79 12 22

Eskoriatza 943 71 40 59

Oñati 943 78 03 65

RENFE 902 24 02 02

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea 943 79 33 99

Hiltegia (Zubillaga) 943 78 15 12

Mendi nekazaritza elk. 943 76 25 47

Nekazaritza Ganbera 943 76 10 15

Zerga Bulegoa 943 76 58 63

Euskara Taldeak

Debagune 943 77 12 28

AED / Arrasate 943 71 21 17

Axtroki / Eskor. 943 71 54 34

Goibeko / Elgeta 943 78 90 85

Loramendi / Aretx. 943 77 09 70

Idolaz / Antzuola 943 78 70 56

Jardun / Bergara 943 76 08 19

Laixan / Oñati 943 71 63 11

Txirritola / Aram. 945 44 52 66

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate 943 77 11 43

Bergara 943 76 44 42

Oñati 943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio 945 44 53 35

Arrasate 943 77 16 77

Aretxabaleta 943 71 26 28

Bergara 943 76 56 41

Elgeta 943 76 82 84

Eskoriatza 943 71 53 28

Oñati 943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola 943 76 60 65

Aramaio 945 44 53 74

Arrasate 943 77 01 05

Aretxabaleta 943 71 10 27

Bergara 943 77 91 58

Eskoriatza 943 71 46 88

Leintz Gatzaga 943 71 47 46

Oñati 943 78 03 53

Udalak

Antzuola 943 76 62 46

Aramaio 945 44 50 16

Arrasate 943 79 09 00

Aretxabaleta 943 71 18 62

Bergara 943 77 91 00

Elgeta 943 76 80 22

Eskoriatza 943 71 44 07

Leintz Gatzaga 943 71 47 46

Oñati 943 78 04 11



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU





**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Gorka Lezeta**  
Apirilaren 25an, 5 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Sonia Alonso**  
Maiatzaren 2an, 10 urte. Zorionak! Ahizpa, guraso eta izeben partetik.



ARRASATE  
**Beñat Iturriotz**  
Maiatzaren 10ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Ibai Ormaetxea**  
Maiatzaren 11n, 5 urte. Zorionak! Ametsen eta gurasoen partetik.



ARRASATE  
**Aitziber Soriano**  
Maiatzaren 12an, 21 urte. Zorionak, Txori! Lagunak eta etxekoak.



BERGARA  
**Endika Ibaibarraiga**  
Maiatzaren 2an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak, Ziortza, Iker eta Josu.



BERGARA  
**Anartz Almorza**  
Maiatzaren 5ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Julen Cabo**  
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, eta bereziki Unai.



BERGARA  
**Edurne Arregi**  
Maiatzaren 5ean, 29 urte. Zorionak, etxekoan partetik. Bereziki Anartz.



BERGARA  
**Gorka Ibarra**  
Maiatzaren 6an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak, eta bereziki Jonek.



BERGARA  
**Uxue Agirre**  
Maiatzaren 8an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoan partetik.



BERGARA  
**Aitor Elkoro**  
Maiatzaren 8an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Miren Gonzalez**  
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak! Gurasoak eta Mariñe.



BERGARA  
**Eder Elkoroberezibar**  
Maiatzaren 9an, 3 urte. Zorionak, potxola! Etxekoak.




BERGARA  
**Jon Agiriano**  
Maiatzaren 11n, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Senideak.



BERGARA  
**Iker Etxaniz**  
Maiatzaren 14an, 2 urte. Zorionak, etxekoan partetik, batez ere Ander.



ARETXABALETA  
**Itziar Aperribai**  
Maiatzaren 7an, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Antonio Altube**  
Maiatzaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat, aita! Ilobak.

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiazu ezusteko ederra!



ARETXABALETA  
**Aitzol Lagunilla**  
Maiatzaren 10ean, 3 urte. Zorionak! Oskitx, amatxo eta aitatxoren partetik.



ESKORITATZA  
**Beñat Arrieta eta Ander Zubia**  
Apirilaren 26an, 10 urte eta apirilaren 27an, 10 urte. Uda Pool taldeko jokalariei zorionak eta urte askotarako. Datorren urtean txapeldunak! Zuen lagunen partez.



MARIN (ESKORITATZA)  
**Garbiñe Beitia**  
Maiatzaren 10ean. Zorionak eta muxu bat Goienako lankideen partez.



OÑATI  
**Mikel Saiz**  
Maiatzaren 8an, 34 urte. Zorionak Txantxi! Goienako lankideak.



ELGETA  
**Igor Irazabal**  
Maiatzaren 9an urtebetetzea. Zorionak todo terreno!

**Jaiotakoak**



**Ibai Murgia Moral**  
Arrasate • 2,380 Kg. Maiatzak 1. Gurasoak: Juan Luis (Arrasate) eta Ainhoa (Arrasate). Argazkian: Ibai aharrausika amaren besoetan.



**Enara Lasagabaster Mancebo**  
Eskoriatza • 3,700 Kg. Maiatzak 5. Gurasoak: Mikel (Arrasate) eta Gemma (Arrasate). Argazkian: umea amarekin.



**Aizea Bermejo Alberdi**  
Oñati • 3,280 Kg. Maiatzak 5. Gurasoak: Fabian (Oñati) eta Olatz (Bergara). Argazkian: Aizea gustura lo.



**Ekain Guridi Carrascal**  
Oñati • 3,580 Kg. Maiatzak 7. Gurasoak: Josu (Oñati) eta Gemma (Arrasate). Argazkian: umea kuman.



**Jokin Murillo Ugarte**  
Oñati • 3,650 Kg. Maiatzak 7. Gurasoak: Mikel (Oñati) eta Ana (Oñati). Argazkian: umea amarekin.



**Ametz Lizarralde Larrañaga**  
Bergara • 3,280 Kg. Maiatzak 7. Gurasoak: Aiert (Bergara) eta Ainhoa (Bergara). Argazkian: umea amarekin.

**Zoriondu ARRASATE IRRATIAN**




Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIA**n

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**



**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN

85 euro  
**943 25 05 02**



**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:35

**Ondarreta-Itzar gau ibilaldia eta kirol kontuak**

Ondarreta-Itzar gau-ibilaldiaren gainean jardungo dute Joxe Eugenio Otadui arrasatearrarekin. Erljioarekin lotutako ibilaldia da. Kirolen tartean, Haritz Gallastegi eta Jokin Etxebarria kazetariak izango dira gonbidatuak.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:15

**ETEOko Eunate Eliori elkarrizketa**

ETEOko Eunate Eliok Emakumeak kooperatiben zuzendaritzan eta gobernu karguetan izenburuko lana egin du eta Emakunderen berdintasunerako foroan aurkeztuko du. Elio elkarrizketatuko dute eguerdian.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Ligari tarte berezia egingo diote**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**Joseba Azkarragari elkarrizketa**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Ingeles udalekuak Azepeitan**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 8




**Kirol albisteak Julen Iriondoren eskutik 21:15**

Aste bukaerak emandako kirol albisteei gainbegiratu. Mugarri Alkesak jokaturako Seiko Finalaren gainean erreportaje berezia.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:45 Gaurkoak.
- 14:47 Zera dio eta Motzean.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Sustrai.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Ilunpean.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 9




**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15**

Gizarte eta politika gaiak Berbaire saioan. Gorka Etxabe aurkezlearekin batera Miren Elgarresta, Larraitz Ugarte eta Ainhoa Larrañaga izango dira.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz zikloa.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Gaurkoak.
- 14:47 Eltze beroa.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Danbaka saioa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Ilunpean.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ilunpean: Mikel Laskurain.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Berbaire: Miren Elgarresta, Ainhoa Larrañaga eta Larraitz Ugarte.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 10



**Ignacio Lakuntza, 'Debarri'-ko gonbidatua 22:15**

Ignacio Lakuntza Arrasateko alkatea izango da Debarri saioko protagonista oraingo astean. Alberto Gorritibereak aurkeztutako saioa.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustrai.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 21:47 Debarri: Arrasateko alkatea, Ignacio Lakuntza izango da protagonista.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 11




**Olatz Lazkano 'Didjeridu' saioan 22:15**

Olatz Lazkano gazte arrasatearra alkatea eta urpekaritza eta animaliak ditu gustuko. Amagoia Lasagabasterrek elkarrizketatu egingo du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustrai.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustrai.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu: Olatz Lazkano biologoari elkarrizketa.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire: Miren Elgarresta, Ainhoa Larrañaga eta Larraitz Ugarte.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 12



**Mikel Laskurain aktorearekin berbetan 22:15**

Oihana Elortza kazetaria eta Mikel Laskurain aktorea berbetan ibiliko dira Ilunpean saioan. Besteak beste, Wazemank saioan ari da Laskurain.


- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16 mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Elgetako saihebiderearen 2. fasearen ibilbide proiektua aurten egingo da eta espero dugu lanak laster hastea"**

PATXI BASAURI | ELGETAKO ALKATEA  
Berriak, 2006-05-03



**"Datorren urtera begira ezkerreko indarrak batu behar gara uste dugu, Aretxabaletan udal herritarra osatzeko"**

XABIER SARASUA | ARETXABALETAKO ARALARKO KIDEA  
Berriak, 2006-05-04

**'Didjeridu'**

**Olatz Lazkano**

Eguenean, maiatzaren 11n, 22:15ean, Olatz Lazkano Arrasateko biologoa elkarrizketatuko dute.



**Ikustekoa!**



ITZIAR UGARTE

*optika*

# ORDAINKETA ERRAZAK

**6 hilabetetan  
ordaintzeko aukera.**

(N.A.N. eta zure kontu-korrante edo  
txartel zenbakiarekin bakarrik)

**INTERESIK GABE**  
Galde iezaiguzu!!

0%



## Hamarrekoa

MAIDER SEDANO | GAZTE INFORMAZIOKO TEKNIKARIA BERGARAN

### "Batzuk beldurrez sartzen dira bulegora, baina gazteak ez du adinik"

Oihana Elortza

**1. Badu adinik gazteak?** Jaur-laritzak dio 30 urtetik gorakoak ez direla gazteak. Niretako, ordea, gaztea da zerbait egin gura duen edonor, eta horrek ez du adinik.

**2. Eta 30 urtetik gora dituzten bergararrak asko etortzen dira gazte informazio bulegora?** Bai. Batzuk beldurrez sartzen dira, egia esan, erreparo pixka batekin, "ez dakit gu gazteak garen, baina..." esanaz. Hemengo informazioa, ordea, guztiendako da. Urtean 800 lagun inguru etortzen dira informazio bila.

**3. Ze informazio eskatzen dute gehienek?** Urtarri-lean eta irailean, adibidez, ikastaroei buruz galdetzen dute, baina gai nagusiak dira: lana, ikasketak, sariak, bekak, lehiaketa eta, gero eta gehiago, mendi ibilaldiak. Horrez gain, ikasle edo aterpe txartela egite-ara ere asko etortzen dira, baita familia osoak ere.

**4. Informazio turistikoak ere ematen duzue?** Baita hori ere. Adibidez, behin etorri ziren guraso batzuk

Italian lo egiteko informazio bila. Hegazkina merke hartu zuten eta aterpea behar zuten.

**5. Aurten ere Gomendatzen dizut saria antolatu duzue, ezta?** Bai, Oñati, Arrasate eta Bergara hasi ginen; Oñatik utzi egin dio, baina zortzi herri elkartu gara aurten ere. Dagoeneko martxan da.

**6. Zuk zer toki gomendatzen didazu?** Plentziako aterpetxea, adibidez. Garbia da, jabeak jatorrak dira, metroa hartu eta 25 minutuan Bilbon zaude, hondartza ere bertan duzu.

**7. Modajarraitzen duzue?** Ez. Kolore ilunak gustatzen zaizkit, nahiz eta uda partean kolore bizi batzuk sartu gero. Arropa eta zapata erosak erabiltzen ditut.

**8. Liburuetan hartzen dituzte liburuak irakurtzeko?** Bai, behera jaitzen naiz eta hantxe hartzen ditut. Liburu arinak gustatzen zaizkit; barre egitekoak badira, hobeto. Askotan liburu mardulak eta serioak irakurri behar izaten ditut lanerako, eta horregatik, arinak aukeratzen ditut lo har-



JOSETXO ARANTZABAL

Urretxukoa da Maidar Sedano eta zazpi urte daramatza lanean Bergarako gazte informazio bulegoan, Errotalde jauregian. Bergarakoek nabaritzen diote ez dela hemen goa, eta Urretxukoek esaten diote dagoeneko ez duela hango euskara egiten, Bergarako azentua duela. Irratia du une oro piztuta; tarteka albistekak entzuten ditu eta tarteka, musika.

tu aurretik irakurtzeko. Berdin gertatzen zait filmekin ere, umorezkoak gustatzen zaizkit.

**9. Zein da egin duzun azken oparia?** Arropak, iloba jaiaberriari. Niri egin

didaten azken oparia, aldiz, MP3a izan da.

**10. Egia da parrandazalea zarela?** Bai, baina lehen baino gutxiago egiten ditut.




### Biharamuna

Iñigo Biain

## Magoak eta trikimailuak

Oñatin San Migel Txikiak izan arren, zapatu gauean Elgetara ihes egitea erabaki genuen **Aitziber, Jimmy, Uxue, Joseba** eta bostok. Bai, jaietako errealitateari ihes egin nahi izan genion magiaren mundu irrealera jauzi eginez. Izan ere, Espaloian, eta bigarren urtez, magia asteburua antolatu dute, berriz ere arrakasta handiz. Baina ezin eguneroko errealitateari ihesik egin hala ere.

**Francisco Aparicio** mago eta karteristak argi erakutsi zigun zein den gure agintariak erabiltzen duten politika: jendea barre eragiten dioten bitartean, ikuspuntu daukatenari kartera, erloju, gorbata eta betaurrekoak lapurtzen dizkiote. Eta jendeak txalo! **Arno** magoak ere beste ikasgai bat erakutsi zigun: tamaina guztietako "pajaroak" ager daitzekela gutxien espero duzun tokitik! Eta jendeak txalo! Baina zer da hau? Magia edo kritika politiko ezkutua? Zergatik bilatzen dute batzuek trukua, beste batzuek txalo egiten duten bitartean? **Evo Morales** da azkenaldian politikaren trikimailuak azaleratu nahian dabilzanetakoa bat (kasu honetan magia beltzaz ariko ginatke, petrolioa bezain beltza), eta **J. M. Sanchez Gordillo** izango litzateke beste bat, Marinaleda herrixkako alkatea (magia gorria?). Magoz beteta dago mundua, bai, baina zorionez magoen trikimailuak bilatzen dituzten gutxi batzuk ere badira oraindik. Beraiei eskaini nahi diet zutabe xume hau, eta baita, noski, Espaloiko magia asteburua antolatu duten majoei ere.



**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

WEBGUNEAN ➔ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

# smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abesaria) | **KODEA**

**Himnoak**  
Elbar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Real | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Folk**  
Arrasalde honetan (Sorotan Beke) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantboa) | **BANI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**  
Galiziera noa (Oskorn) | **GALIZIARA**  
Gemikako Arbada (Gontzal Mendibil) | **GERNIKAI**  
Haika Mutri (Mikel Laboa) | **HAIKA**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)  
Abestiaren izena | **KODEA**

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**  
Lepoan hartu ta (Pantboa/Peio) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai (Sorotan Beke) | **MARINE**  
Nere herriko neska baxa maite (B.Lertxundi) | **NERE**  
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**  
O! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | **OMAMA**  
Tirauki (Oskorn) | **TIRA**  
Txabamatzalinetxu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**  
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

**Herrikoia**  
Bagare | **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**  
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

1,2,3,4...Real! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic Iuepi! | **IUEP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu... Aitarren ta semea... | **AITAREN**  
Hartu... Ansar | **ANSAR**  
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu... Miami! | **MIAMI**  
Independentsia! | **INDEPENDEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALAPA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txootx | **TXOTX**

**LAU1** **MUSKARIA** **AIZKORAK**

**NUKLEAR** **KALABERAI** **EGUZKILORE3**

**SORGIN** **POPATIK** **KAPUTX**

**OHARRAK**  
**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatuzeko, jar zaitzete zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPS sistemari alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 64 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-24. / \* Movistar: deitu 009-94.  
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.